

artea
periscopio
krea

QEU

2,40 €

2007ko urria

177

gaiak
udaleku musikalak
sareinak
la malquerida taberna

bidaiak
ubideak. bizikletaz
euskara
mintzalaguna

mikel valverde
irudigilea



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK

Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.




CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeraentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com

sumarioa 177

7

MIKEL VALVERDE



18

KREA



32

LA MALQUERIDA


- 4 zeregin
urriko agenda
- 7 geupertsonaia
mikel valverde, 'ritaren mundua'
- 11 euskaltasunean. gasteiz
anę pedruzo
- 12 kaletik / idazleen zutabea
uda osteko ajeak / oskar espinosa
- 13 geugaia
mintzalaguna gasteizen
- 16 gaztezulo aldizkaria
euskara eskolak mexiko df-n
- 18 geugaia
krea, espresio garaikidea
- 22 arte txokoa
udaleku musikalak:
xabier lizaso pianojolea
- 24 arababixotzian / historiazutabea
mundina / erlantz urtasun
- 25 proposamenak
bideojokoa / gari
- 26 batbitan
periscopio erakusketa
- 28 batbitan
sareinak aldizkaria
- 30 bidaia
midi & garona ubideak bizikletaz
- 32 batbitan
gasteizko tabernak: la malquerida
- 34 historia
ribabellosa
- 35 umorea
iñigo sarasola

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua
kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu
breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune veleaz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak:

josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain, maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhua arriaga eta naraa cuesta | azala: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa:
estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola
| kolaboratzaileak ale honetan: oskar espinosa, mundina, kike fdz. de pinedo, erlantz urtasun eta mikel bringas | publizitatea: idoia breñas,
geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop.
E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Franko Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



www.geugasteiz.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

zereGINEUSKARAZ



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

urriak 21, igandea
S. LEON (1389 m.) eta ATXABAL
(1172 m.)
[Kantabria mendikatea]
*goizeko irteera
irteera: loaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduraduna: bego (945266812)

KULTUR ERROTA

urriak 30, asteartea
DIAPORAMA: MENDI-ESPEDIZIO
ARABARRA-2007 [TXINA-8.000koa]
parral tabernan, 20:30

IRAKURLE KLUBA

egitaraua

urriak 25, ostegunarekin
anjel lertxundi, ihes betea,
alberdania 2006
azaroak 29, ostegunarekin
amélie nothomb, katilinarenak, igela
2006
abendua 20, ostegunarekin
beñat sarasola, kaxa huts bat, susa
2007
urtarrilak 31, ostegunarekin
mark haddon, txakurrari gauean
gertatutako istripu bitxia, igela 2006
otsailak 28, ostegunarekin
arantxa urretabizkaia, koaderno
gorria, erein 1998
apirilak 3, ostegunarekin
george orwell, 1984, txalaparta
2007
apirilak 24, ostegunarekin
harkaitz zubiri, zakur kale, susa 2007
maiatzak 29, ostegunarekin
max frisch, homo faber, elkarlanean
2001
ekainak 26, ostegunarekin
karlos linazasoro, diotenez, erein
2007

lekua: hikaateneoa, pintore
kalea 13
ordua: 20:00
kontaktua: iban.zaldua@ehu.es
www.geugasteiz.com



IRUDITXOKOA

Ciclo de Cine en Euskara Zine Zikloa Euskaraz



GAUEKOAK

eskaintza egina dago. gozatu gaua
euskaraz!

KONTZERTUA: OMENALDIA NEGU GORRIAKI

urriak 26
aihotz plaza, 21:00

'IRUDITXOKOA' ZINE ZIKLOA EUSKARAZ

urriak 19, 26 / azaroa 2, 9 (20:00)
azaroak 16, 23, 30 (22:00)
luis de ajuria aretoa

LANTEGIAK

BERTSOAK

azaroak 3, 10, 17, 24; abenduak 1;
14an ekitaldia
22:00-00:00 / 5 euro

SEXOLOGIA, HILEROKOA ETA KONPRESAK EGITEKO LANTEGIA

azaroak 3, 10, 17, 24
22:00-00:00 / 5 euro

DANTZAK

urriak 19, 26; azaroak 2, 9
22:00-00:00 / 5 euro
FIMO

azaroak 2, 9, 16, 23
22:00-00:00 / 5 euro

TXALAPARTA

azaroak 3, 10, 17, 24; abenduak 1
22:00-00:00 / doan

izena emateko: gizarte etxeetan
08:30-21:00ak bitarteko
ordutegian, edo www.vitoria-gasteiz.org web orriaren bitartez.
jarduera bakoitza hasi arteko
epean
www.gauekoak.com

GORA TABERNA

(gasteizko alde zaharra, 945121452)
KONTZERTUAK EUSKARAZ

PARRAL TABERNA

(gasteizko alde zaharra)
KONTZERTUAK, ANTZERKIA,
ERREZITALDIAK, DIAPORAMAK...
EUSKARAZ
asteartero, 20:30ean

BISITALDI GIDATUAK

GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

astelehenetik igandera (jaiegunak
barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 /
17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako
haurrak: dohainik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net

ARTIUM

igandero, 11:30ean
doan [taldeentzat (25 lagun
gehienez) gidari-zerbitzua kontrata
daiteke (aldez aurretik abisatuz). 75
euro orora, sarrera barne]
945209010
ARTIUM: FAMILIENTZAKO
BISITA GIDATUAK
urriaren 20tik aurrera
larunbat & igandek: 12:30-13:15
5-11 urte bitarteko umeentzat,
helduek lagunduta
plaza mugatuak
informazioa eta erreserbak: 945 20
90 10
www.artium.org

IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947
www.veleia.com

ANDRA MARI KATEDRALA:

945255135
www.catedralvitoria.com

GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA

erreserbak: andramari katedralaren
bisitarien zentroan / 945 255 135
4 bisita eguneko (iraupena:
ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45
2 euro pertsonako

KULTUR IKASTAROK: MENDEBALDEKO EUSKARA

[gasteizko udalaren kultur saila]
*izena emateko epea zabalik dago
edozein gizarte etxetan, ikastaroa
hasi
bitartean (urriaren 17ra arte)
hegoalde gizarte etxean
asteazkenetan, 19:30etik 21:00etara
10 saio: urriaren 17, 24 eta 31 /
azaroaren 7, 14, 21 eta 28 /
abenduaren 5, 12 eta 19a
matrícula: 26,70 euro
matrícula murriztua: 13,35 euro
www.vitoria-gasteiz.org

ANTZERKIA

KORRI PAILAZOA: 'SHOW BERRIA PRESTATZEN'

urriak 4 (osteguna)
laudioko basalarrina txokoa,
18:00etan
eguraldi ona egiten duenez, korri
pailazoak mendira egun pasa joatea
erabaki
du. bere bila joan behar zuen
furgonetari gupila zulatu zaio eta
denbora nolabait bete
beharrean aurkitu da. show berria
prestatzeari ekingo dio publikoaren
laguntza
zuzenarekin. dekoratu bizia, musika,
abestiak, efektuak, dantzak eta txoro
kantak.
basalarrina elkarte & topagunearen
eskutik
www.topagunea.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK:

'MUNDUKO IPUIN ETA KONDAIRAK'
urriak 14 (igandea)
arrespalditzako udaletxean,
17:00etan

munduko kultura ezberdinetako ipuin eta kondairak, irakurketa eta liburuak, haur mundura modu atseginean hurbiltzea da lan honen helburua: 'iliada', 'odisea', 'mila eta bat gauak', 'done jakue bideko kondairak', 'amaia edo VIII. mendeko euskaldunak' eta gaur egungo ipuinak ikusi, entzun eta dastatzeko modu alai eta berri bat. antzerki ikuskizun hauetan ipuin kontalarien eta "commedia de l'arte"ren teknikak erabiltzen dituzte. ikuskizun bakoitzak bere eszenografia eta musika bereziak ditu. hogeitalau elkarte & topagunearen eskutik
www.topagunea.com

KREA: KOMIKIA & POESIA PROGRAMAK

KREaren komikiaren & poesia arloko azken sormen-joerak sakontzeko programak

epea: abenduak 15

> kreak bere gain hartzen du komikiko eta poesiako eskola-lehiaketen koordinazioa, 25. eta 3. edizioetan, hurrenez hurren

> araban edo caja vital kutxaren eragin-esparruan bizi diren 9 eta 17 urte bitarteko ikasleek har dezakete parte lehiaketetan (haur kategorian, 9-13 urte bitarteko ikasleak, eta gazte kategorian, 14-17 urte bitartekoak).

> komikiaren kasuan, gazteek zentro eta maila bereko taldeek sortutako lan kolektiboak aurkez ditzakete.

> lan irabazleak: www.kreared.com eta bilduma-lanetan argitaratuko dira
> oinarriak: webean.com / kreaken behin-behineko helbidean (posta kalea 17) / 945 150 147

GASTEIZKO NAZIOARTEKO XXXII. ANTZERKI JAIALDIA

EMAKUMEAK EUREN OHEETAN (tantaka)

azaroak 3, larunbata
principal antzokian, 20:30
sarrerak: 17/12/9 euro




ITXO... TXOIN! (gar produkzioak)

azaroak 18, igandea
federico garcia lorca antzokia (lakua g.e.), 12:00-18:00
(1-3 urte bitarteko haurrentzat)



sarrerak: 945161045 /
www.vitoria-gasteiz.org/teatros/
www.cajavital.es/
www.generaltickets.com



NATUR ESKOLAK

zer: ingurumenean oinarritutako kalitatezko programa hezigarria barneratzea, zazpi euskal lurraldeetako ikasleekin

non: urbasako natur eskolan

norentzat: lh5, lh6, dbh1 eta dbh2ko ikasleentzat / iparraldeko eremuan:

lehen mailako 4. eta 5. urtea eta kolegioko 6 eta 5a (10-13 urte)

noiz: urria, azaroa, martxoa, apirila, maiatza eta ekainean

3 egunez (astelehenetik asteazkenera edo asteazkenetik ostiralera)

prezioa: 55 euro (asegurua, ikasmateriala, kirol, kultura eta ekintza sozialak barne)

izen ematea:

+34 943 670 249

urbasanbagara@udalbide.net
www.udalbide.net



URTXINTXA ESKOLA

ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO IKASTAROAK

izen ematea: hasi baino 2 aste lehenago

EUSKARA SUSPERTZAILEA

urriak 22, 24, 29

ZER GERTATZEN DA GIZONEKIN?

urriak 20

LUDOTEKAN MUNDUA JOLASEAN

azaroak 17,24

EUSKARA ETA TEKNOLOGIA

BERRIAK

azaroak 20, 22, 27

bizkaiko astialdi eta suspertze soziokulturaleko eskola zabalbide 26, behea. bilbo.

944320445

urtxintxa@urtxintxaeskola.org

www.urtxintxa.org



MONTEHERMOSO KULTURUNEA. ERAKUSKETAK

IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK 06

azaroaren 4ra arte

- iratxe jaio - meanwhile, in the living room... (zeharkako sekzioa)
- diego del pozo - prometeo gabe
- abigail lazkoz - hilarena egiten
- aldaera kartografikoa - alba lucia romerok komisariatua

PASAHITZAK

emetasunari buruzko irudikapen berriak. 2. zikloa
urtarrilaren 24ra arte

BISITALDIAK EUSKARAZ:

asteazkenero 19:30ean
taldeak: astearte eta ostiralak, 18:00etan (erreserbarekin)

TXIKIART

Larunbatero, 18:00etan
4-9 urte bitarteko umeentzako tailerrak

945161830

www.montehermoso.net

SALTZAILE BAT BEHAR DA

gasteizko opari denda baterako astelehenetik larunbatera bidali curriculum-a:
834 posta kutxa
01080 vitoria-gasteiz
lanea@nonbait.com


GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! jatetxea

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec
Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materialak
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materialak
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopioak
Komiseten Estampaketak

azkarprint
argazki / inprimategia
Edozein inprimoketa
mota.

• PAPERTEGI TEKNIKO • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eramun
Argazki - Estudioa

Heraclio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna
zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkaturia - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

El Clarete
jatetxea



unai eta patxi fdr. de retana
zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874



KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

MIKEL VALVERDE

“Beti amestu dudana daukat, istorioak kontatzea hitz zein marrazkien bitartez”

Mikel Valverdek El Mundo de Rita bilduma kaleratu berri du Macmillan argitaletxearen gazte literatura zigilupean. Komigintza, album ilustratu eta ilustrazioaren arloan autore ezaguna izatetik literatura mundura jauzi egin eta aurreen bost liburu kaleratzeko asmoa du. Umorea eta abenturak uztartuz Ritak mundua ikusteko duen modua deskubritzen joango gara bilduma honetako izenburu ezberdinetan.





EL MUNDO DE RITA Ritaren mundua

Bilduma honen baitan momentuz lau dira kaleratu berri diren izenburuak: Rita tenista, Rita gigante, Rita en el polo eta Rita y los ladrones de tumbas. Liburu hauetan Ritak, zortzi urteko neskaila txiki eta beltzaranak, bere adinerako arruntak diren egoera eta gatazka desberdinak biziko ditu: familiartekoak, eskolakoak eta baita lagunartekoak ere. Bere osaba Danielekin munduko hainbat leku bisitatzeko aukera izango du eta suertatzen zaizkion abentura eta esperientzia ezberdinetatik Ritak bere burua ezagutzen ikasiko du.

t. maite lekue
a. edorta sanz

El mundo de Rita zure azken lana da eta bertan idazle eta ilustratzaile bezala aurkitzen zaitugu. Nola burutu zenuen proiektu hau?

Proiektu hau orain dela urtebete hasi nuen. Paperean marrazki bat egin, kolorea eman, eta marrazkia ikusi bezain pronto indar asko zuela sumatu nuen. Pertsonaia horren bidez istorioak konta nitzakeela ulertu nuen eta hau egiteko gogo handia nuen. Niretzat bi pilotu idatzi nituen eta momentu horretan MacMillan argitaletxea nirekin harremanetan jarri zen nire lanen bat eskatuz. Nik lan hau esku artean nuen eskaini egin nien, nire proposamena izan zen, eta urtebetean lau liburu egiteko asmoa helarazi nien. Nik argitaletxearen partez jarrera baikorra ikusi nuen bai lan egiteko zein entzuteko, eta azkenean baietza eman zioten proiektuari.

Nolakoa izan da emaitza? Gustura zaude egindako argitalpenarekin?

Oso pozik nago. Azal gogorra, koadernaketa ona eta erreprodukzio bikaina landu dituzte.

Hasierako jarrera ona mantendu du MacMillan argitaletxeak prozesuan zehar. Zein hizkuntzatan aurkeztuko da?

Bilduma hau kaleratzearen ideia nik luza-tu nion argitaletxeari, orain arte testulibu-


ruak soilik argitaratzen zituztelako. Hasieratik oso baikor agertu ziren, gogotsu, ilusio eta konfiantza handiz, eta jarra horrek autorearen beti asetzen du. Liburua gazteleraz eta katalanez argitaratuta dago eta euskaraz ateratzea aztertzen ari dira oraindik.

Zein arlotan sentitzen zara gusturago, idazlearen paperean edota irudigilearen?

Ni pozik sentitzen naiz gustuko dudana zerbaitetan lanean nabilelako, beti amestu dudana lana daukat, istorioak kontatzea bai hitz zein marrazkien bidez. Oraingoan idazteko gogo handia nuen nahiz eta lanbide bezala agian nire burua ilustratzailearen hobe kokatu, lan egiteko modu-gatik batez ere. Hala ere Ritaren bilduman testuak pisu handiagoa hartzen du eta hau niretzat berria izan denez gogotsu hartu dut. Nire idazteko modua irudien bidez eraikia dago, pinturaren eta zinearen eraginez, eta horrexegatik nire marrazkiak oso literarioak dira, gauza asko kontatzen dituztelako.

Zein izan da orain arte egindako lanaren ibilbidea?

Ni komikiaren eta fanzinearen mundutik nator. Arte Ederrak ikasi banituen ere autodidakta sentitzen naiz. Marrazkilari frantsesen eraginez ikasi nuen komikia egiteaz aparte ilustrazioa ere egiten zutela eta ideia hau gustatzen zitzaidanez nire estudioan komikia eta ilustrazioa garatzen



hasi nintzen. Liburuak ilustratzen Bernardo Atxagarekin hasi nintzen, ezaguna nuelako eta auzo berean bizi izan ginela-ko garai batean. Harreman honek ilustrazioaren munduan sartzea ahalbidetu zidan eta argitaratzea lortu nuen. Horrela komikia eta ilustrazioa bateratzen hasi nintzen. Denborarekin gustuko nituen autoreak bezala jokatu nahi nuela sentitu nuen, eroso izan nahi nuen hizkuntza batean, gustura sentitu eta istorioak kontatzeko gogoia nuela sentitu nuen. Horrela 2005 urtean Paula en Nueva York aterata zen, nire literatur lehen liburua izango zena eta beragatik sari bat eman zidaten. Liburu hau ondo jaso izan zen eta beste bat idaztera animatu nintzen, El secreto de Mozart, eta honek ere kritika onak jaso zituen. Bi liburu hauekin gustura eta eroso sentitzea lortu nuenez, konfiantza hartu eta lengoaia berri honetan Rita idazteari ekin nion.

Arestian aipatu legez, Paula en Nueva York liburua Ilustrazioaren Sari Internazionala bereganatu zuen 2005 urtean. Zer ekarri dio lan honek zure bizitzari?

Album ilustratu honek gauza asko eman dizkit, Estatu Batuetan argitaratzea, New Yorkera egindako bidaia, poztasuna..., baina bereziki autore bezala lehenengo agerpena izanik harrera ona jaso nuela, baita kritika onak ere. Irabazitako saria garrantzitsua da eta honek edizio on bat ziurtatzen du betiere. Paulak lehen urrats bat ekarri zuen nire ibilbidean eta lehen urratsak beti gogoratzen dira halako samurtasun batekin.

Nola sortzen da Ritaren bidez gauzak kontatzeko beharra?

Idazten jartzen zarenean gauzak kontatzeko behar batek mugituta hasten zara eta liburutuetan islaturik ikusten ez duzun forma bat berenganatu nahian. Nik egunerokotasunean ikusten nituen gauzak kontatu nahi nituen. Horrexegatik Rita bilduma idazten hasten naiz. Gustuko dudak umore bat landu nahi nuen eta kontatzea gogoko ditudan gauzak Rita pertsonaiaren bidez transmititzen ahalegindu naiz, gidoizalea naizela-



“umorea, errealitatea eta fantasia oso present daude eta horregatik gazte literaturan oso gustura sentizen naiz hauek uztar ditzakeedalako”

ko eta Ritaren bidez istorioak kontatzea bilatzen dudalako.

Nolakoa da bilduma berri honetan islatzen duzun Rita neskak?

Ritak izaera sendoa du, ausarta, ikusbera eta bihurria da. Baina aldi berean, bere ahuleziak ere baditu eta batzuetan okertzeraz eramaten dutenak. Ritaren xalotasunak beti lekuz kanpo izatera bideratzen du, baina bera azkarra eta ausarta denez zuzentzen ikasi eta egoera nahasietatik ateratzea lortzen du. Ritak bere jakinmina asetu nahi du, gaur egun kontsumismoaren eraginez ezabatzen saiatzen den aspektu bat hau izanik. Rita bere burua ezagutzen joango da poliki-poliki, bere

akatsetatik, ondo egindako gauzetatik, helduen mundutik... Ironia handia dago liburuan, jarrera errebeldea umore eta alaitasun ikutuekin. Umorea, errealitatea eta fantasia oso present daude eta horregatik gazte literaturan oso gustura sentitzen naiz hauek uztar ditzakeedalako.

Nola sartzen da idazlea zortzi urteko pertsonaia batek mundua ikusteko duen moduan?

Idazle bat azken finean pertsona heldu bat da eta ezinezkoa egiten zaigu ume baten buruan erabat sartzea, baina bai jakina bere lekuan jartzea. Pio Barojak esaten zuen bezala oso garrantzitsua da besteen lekuan jartzea eta amets egitea. Ni hori egiten saiatzen naiz, besteen lekuan jartzea, ikusten ditudan gauzetan arreta jartzea. Gertuen ditudan haurrak nire ilobak dira eta adi izaten naiz ikusten ditudan gauzekin, baina baita kalean ikusten ditudanekin ere. Intuizioaren bidez mugitzen naiz eta izaera honetan Chaplin eta Buster Keaton bezalako pertsonaien eragina nabari zait. Hauek istorio oso bisualak kontatzen zituzten, irudimen handia zegoen zentzugabeko ego-

eretan eta bilduma honetako izenburuetan haien eragina presente dago.

Zein genero erabili duzu Ritaren mundua sortzeko?

Umorea eta abentura oso presente daude liburuan. Umorea elkarriketen bidez sortzen saiatu naiz, Ritari suertatzen zaizkion nahasteak, gaizki-ulertuak eta egoera nahasiek ematen diote umore puntu hori. Zinema komikoaren jarraitzaile izan nahi eragina du liburuan horrelako egoeretan, bai eta gaizki-ulertze zein lekuz kanpoko memento horietan ere.

Proiektu berriren bat al duzu momentuan esku artean?

Ritaren bildumarekin jarraitu nahi dut, baina datorren urtera begira beste liburu bat ere argitaratuko da. Liburu berri honekin ilusio handia dut, zabalagoa delako, elkarriketentzat espazio gehiago izan dudalako. Ilustratutako albumera ere bueltatu nahiko nuke.

Zeintzuk dira Mikel Valverderen zaletasunak?

Kirola praktikatzeari asko gustatzen zait, naturaz gozatzea eta berau margotzea ere. Bakarkako lana dudanez kalean eta jendearekin egotea asko gustatzen zait, oso soziala naiz eta idazle batentzat

"nire idazteko modua irudien bidez eraikia dago, pinturaren eta zinearen eraginez, eta horrexegatik nire marrazkiak oso literarioak dira, gauza asko kontatzen dituztelako"

beharrezkoa ikusten dut hau. Bidaiatzea ere gustuko dut, Afrika eta Ekialdea batez ere, eta bertan marrazkiak egitea, nahiz eta hauek sekula ere ez argitaratu. Esploratzaileen istorioek txundituta nauten, oso ameslaria naiz, baina lagunekin edo eta konpainia oneko solasaldietan ere oso gustura ibiltzen naiz beti.

Sortutako pertsonaietatik zein hautatzen duzu?

Xola txakurtxoari maitasun berezia diot, Andres errirozteronteari eta Ritari.

Eta beste pertsonaiaren baten jarraitzaile izan al zara zure bizitzan?


Bai, Buster Keaton eta Charlottena.



Hautzarozan Blueberryren istorioak eta Asterixen komikiak oso gustuko nituen.

Egindako azken bidaia?

Groenlandiara ■





Anek egun bereziak beharko lituzke burutu nahi dituen proiektu guztiak aurrera atera ahal izateko, hogeita hamar ordukoak gutxienez. Neska langilea, sentikorra eta parrandazale amorratua da 21 urteko gasteiztarra. Kazetaritza ikasketak amaitu ditu aurren.

t. naraa cuesta a. edorta sanz

Ikasturte osoa Erasmus bekarekin Italian igaro ostean, orain euskarazko komunikazioan murgilduko da Bilbon burutuko duen masterrean. Etorkizunak ekarriko dionaren zain dago, hala ere, bizitzak eskaintzen dituen momentu onak dastatzeko gaitasun aparta erakusten du.

Duzun biziorik handiena? Txokolatea.

Bertuterik? Pertsona alaia eta irekia naizela esango nuke.

Akatsik? Batzuetan jenio gehiegi izan ohi dut, baina momentuko gauza da soilik.

Zer baloratzen duzu gehien gainontzekoengan? Egia eta argitasuna. Gauzak aurpegira esan behar dira, zuzentasunez.

Zure gorputzaren atalik politena? Nire sudurra gustatzen zait.

ANE PEDRUZO

“Gasteizen dagoen gazte konpromisoa azpimarratuko nuke”

Zer eskatzen diozu bizitzari? Lasaitasuna, nire burua kokatuta ikustea eta etorkizuneko planak argitzea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Gezurra eta faltsukeria ez ditut onartzen.

GEU elkartearen eta aldizkariaren berririk? Noiztik? Nire ama harpidetu zen euskara ikasten hasi zenean. Txikitatik ezagutzen dut GEU; etxean izan da beti.

Beldurrik? Heriotzari eta gaixotasunei beldur diet, hipokondriakoa naizela esan daiteke. Bakardadeak ere beldurtzen nau.

Oporrak non eta zertarako? Hegoamerikara joan nahi dut, hango errealitatea ezagutu eta ahal dudan neurrian laguntzeko. Lagun bereziren batekin, edo bakarrik joango nintzateke, baina bikotekidearekin ez.

Eguna ala gaua? Eguna eta gaua, egoeraren arabera. Egunean zehar egiten diren jaiak eta ikuskizunak oso gustuko ditut, baina gaueko parrandaren jarraitzaile sutsua naiz.

Gasteizko gaua, non? Alde zaharrean, noski.

Egunkari bat? Berria.

Telebista saio bat? CSI eta House ikusi ohi ditut.

Liburu bat? ‘Los pilares de la tierra’. Liburu luzea bada ere, ez nuen amaitzerik nahi.

Film bat? ‘Memorias de África’.

Musika talde bat edo musikari bat? Folklore euskalduna, trikitixa batez ere. Kepa Junkerak egiten duen musika entzun ohi dut, eta Betagarriren kontzertuak ez ditut galtzen.

Kirol bat? Capoeira. Klaseetan sortzen den giroa ezin hobea da.

Zer da Gasteizek duen onena? Eta txarreana? Gasteizen dagoen gazte konpromisoa eta bizi den giroa izango litzateke onena. Aldi berean, ekintza horiek aurrera eramateko ezartzen diren trabak aipatu beharra dago.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Bai, baina euskaldunen giroan mugitu behar zara, eta askotan ez da batere erraza izaten. Ohitura falta ere nabaria da gure inguru hurbilenean.

Amets bat? Bidaiatzea eta munduan zehar lagunak egitea.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur eguna. Orainaldian bizi gara, etorkizunean pentsatzeak ez du merezi gauza guztiak okertu daitezkeelako.

Zer eskatzen du herriak? Egonkortasun sozio-politiko-kulturala ■

Oporren osteko ajeak

Udak agur esan digu jada. Eguzkia egun gutxitan agertu bada ere, hilabete hauek jai egunak izan dira askorentzat. Lasaitasunezko amets gozo horretan murgilduta gaudelarik, iratzargiluak esnatu egiten gaitu... lanera bueltatzeko ordua heldu dela gogoraziz.

t./a. naroa cuesta

Gasteizko kaleetan galdetu dugu une horri aurre egiteko egon daitezkeen aukera desberdinak zeintzuk diren. Hauek dira jasotakoak:

- Oporren osteko sindrome berezirik existitzen al da?
- Zer-nolako ihesbidea egon daiteke egoera honi aurre egiteko?
- Zein da lanera bueltatzearen alderik onena eta txarrena?



Txelo Agirre Gil, administratzailea

- Bai, nire ustez horrelako zer edo zer existitzen da, bai. Aurten, esate baterako, asko kostatu zait lanera bueltatzea.
- Oporrak luzatzea litzateke aukerarik egokiena. Ez dago bestelako erremediorik.
- Lanera bueltatzearen alde onik ez dut aurkitzen, egia esan. Eta txarrena, eguneroko bizitzari aurre egitea litzateke.



Joseba Andoni Morales Elorza, forja langilea

- Ez dut uste horrelako sindrome berezirik existitzen den, errutinara bueltatzea da, besterik ez.
- Aurretik mentalizatzea da daukagun aukera bakarra, ez dut uste aurreko astean zehar goizago altxatzeak lagunduko duenik.
- Lanera bueltatzeak ez dauka alde onik. Daramagun bizitza erritmo eta estilo honek horretara behartzen gaituenaz, lanera joan beharra daukagu, besterik gabe.



Miriam Martin Gutierrez, enpresa administrazioa eta zuzendaritza ikaslea & denda saltzailea

- Ez dut uste oporren osteko gaitz berezirik existitzen den. Jai egunak bukatzen direnean sentitzen dugun atsekabea normalizat hartu beharko genuke.
- Lanean hasi aurretik erritmoa hartzea izan daiteke aukera ona, gorputzari ohitzeko egun batzuk eman behar dizkiongu.
- Ordutegiak barneratzea iruditzen zait lanera bueltatzearen alderik txarrena. Hala ere, daukagun lana gustuko baduzu lanera bueltatzeak alde onak ere baditu, izan ere, batzuk aspertu egiten ohi dira jai egunetan.

idazleak



zenbat jende itsasoaren inguruan!

t. oskar espinosa gago

Guardasolek eguzkipean kolore biziez hondartza jantzi dute. Ez dago gerizperik gabeko guardasolik, baina zenbaitek gerizpea zabaltzen du, gizakirik gabekoa. Batzuk solasean itsasertzetik paseatzen, beste batzuk, ordea, ez dira oraindik hondartzara heldu, agian, arratsaldeko lo kulluxkak hartuta.

Nonbait neska gazte batek ondoko mutilari eguzkitarako protektorea ematen dio. Protektore hori maila altukoa da, gaur egungo eguzkia, adituek diotenez, aspaldikoa baino kaltegarriagoa baita. Palmondo baten azpian agure batek bost ordu daramatza eleberri batez. Eskerrak oraindik irakur dezakeen. Azken urte hauetan gaitasun asko galtzen ikusi du bere burua. Lehen itsasertzetik ibiltzen bost ordu baino gehiago ematen zuen, gero, bat-batean, bi, geroago, bat, orain... auskalo, istorioa entretenigarriena omen zaio. Oraingoz ez dirudi hamakatik mugituko denik. Ezetz, ordu erdi baino gehiago!

Noiz bukatuko ote zaie kontakatu horiei mintzagaia?... Bi ordutan dihardute kartetan eta horien ondoan ez da isiltsunik izan ezta segundu batean ere. "Gero eta jende gehiago hipotekak itota", "gazte hauek ez dute inolako errespeturik", "bero naiz, ez naiz bero, atzo bero handiagoa egin zuen..." "Kontuz ibili, umeok, joan harago hareaz jolastera, azkenik zikinduko gaituzue eta!".

Haize pixkat atera da eta hodei beltz batzuek zerua estali dute. Bat-batean zenbait guardasol hegan atera dira. Dena hautsez bete da eta eguzkia orobat ezkutatu da estalki grisaren atzean. Trumoi gogor bat eta lehenengo tantak...

Futboleari ari zen gazte taldeak ez du partidua bukatu nahi. Partidua bina dago eta apustu egin dute gauean garagardoak nortzuek ordainduko. Tamalez, partidua bertan behera geratu da, hondartzatik ekaitzari ihesi arinka datorren jendea leku guztietatik futbol aldea zeharkatzen ari da eta. Horrela ez dago jokatzetik!

"Galernak arriskutsuak dira, behin egunkarian ageri zen surfer baten taulak lehen pisan zegoen andre bat kolpatu zuela". "Eskerrak kartak garaiz bildu ditugun"... Palmondoaren azpian jada ez dago inor.


Gazte bikoteak, euriz gainezka, eskutik lotuta etxera doaz. Hauei arratsaldeak ez zaie hain traumatikoa iruditzen. Tximistek beraianengan beldurra baino gehiago, zirrara sortzen dute. Maitasunak indarra du, gauzak itxuraldatzeko gaitasun berezia.

Hondartza hutsik dago, guztiz profanatuta, leku guztietan zapalduta eta oinez zulatuta. Ez dago zentimetro bat ere giza urratsik gabe.


Olatu erraldoi batek hondartza estali du eta laster, besteak bezalaxe, itsasora bueltatu da, malekoiko palmondo eta postutxoek kontra gogor jo ondoren. Bere erretiradan hondartzaren gainean korronte handia sortu du, betirako desagertu baino lehen.

Hondartza hutsik. Itsasoa besterik ez dago. Harea garbi eta leun, giza oinatzak, indartsuenak zein ahulenak, dakitena dakitela jakiteaz poztzen direnenak zein ezjakin harroenak, den-denak ezabatuta. Hondartza bakarti hartan inor inoiz eta inon ibili ez bailitzan.

Urrunetik etorritako olatuak hondartzan etengabe agortzen dira. Eta harea leunean zabaltzen diren kizkur distiratsuak eta gaziak ez dakit nondik datozen itxaropenak, ez dakit non isuritako malkoak bezain galakorrak dira ■



Mintzalaguna egitasmoa Gasteizen abian



MIKEL AYERBE, egitasmoa-
ren koordinatzailea

Mintzalaguna egitasmoa dagoeneko bidean da. Euskaltzaleon Elkarguneak, Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuak bideratutako EBPNren (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) baitan lortutako hitzarmenaren bitartez, abiatu du hiztunen artean euskara erabiltzeko apustu berria Gasteizen. Euskara kalera ateratzeko tresna, euskaldunen arteko komunikazio sarrerako gakoa. Dibertigarria, atsegina, formala eta arrakastatsua. Euskara ikasle, bertako euskaldunak, gazteak, zaharrak, etorkinak eta finean euskaraz komunikatu nahi duen orori zuzendutako aisialdiko ekintza.

MINTZALAGUNA

MIKEL AYERBE, koordinatzailea

"Denon esku dago Gasteizko Mintzalagunaren arrakasta!"

t. josune velez de mendizabal
a. edorta sanz

Euskaltzaleon Elkarguneak (IKA, AEK, EHE, Euskharan, GEU) aurrera atera duen proiektu berria da Mintzalaguna. Dagoeneko Donostian eta Iruñean martxan dagoena, arrakasta handiz gainera. Horregatik, Topagunea (Euskara Elkarteen Federazioa), bi aurrekin hauetan eskarmentu handia izanik, aholkulari izan du Euskaltzaleon Elkarguneak orain artean. Hemendik aurrerako bidean beste hainbat taldek bat egingo dute Mintzalagunarekin, sustatzaileek alegia. Ondorioz, proiektu zabal eta anitza osatuz, ilusioz eta energiaz ekingo diogu guztion artean egitasmo honi. Mikel Ayerbe izango da Mintzalaguna egitasmoaren koordinatzailea. Berak aurreratzen digu proiektuaren berri. Adi guztiok, datozen egunetan Komunikazio kanpainari hasiera emango baitzaio. Hona hemen zehaztapenak:

Mintzalaguna proiektua abian da urri-tik aurrera. Zertan datza proiektua?

Izatez, euskara ezagutzen duten hiztunen artean euskara erabiltzeko ohitura txertatzean datza proiektua. Euskararen ezagutzatik abiatuta, euskararen erabilera egin nahi den urratsa lantzen da Mintzalaguna programan, betiere partaideen motibazioak, ingurunea, helburuak... kontuan hartuz.

Nori zuzendua da?

Batetik, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten baina euskara maila ertain eta altua duten edozein herritarrentzat zuzendua da. Eta bestetik, euskara hitz egiteko ohitura izan arren, proiektuarekin

bat egin eta bere laguntza eskaintzen duen edozein euskaldunentzat ere bada.

Nola antolatzen dira taldeak?, zenbat kideetakoak izango dira?

Taldeak zaletasun, adin, ordutegi, euskara maila eta helburuen arabera antolatuko dira nagusiki. Taldeak berriz, txikiak izango dira: hirukote eta laukoteak izando dira ohikoenak. Lotsa gainditzeko, guztiek hitz egiteko eta harreman afektiboak modu erosoan lantzeko bidea ematen baitute mota horretako taldeek.

Astean zenbatean bilduko dira?, eta non?, zer egiteko?

Taldeak gutxienez astean behin bilduko dira (printzipioz, ordubete inguruz) eta talde bakoitzak non gelditu, zer egin... erabakitzeko aukera izango du. Bestalde, talde guztientzat hainbat saio osagarri ere antolatuko dira: afariak, txangoak, kultur ekitaldiak...

Ez da ordea, euskaltegietan egiten den mintzapraktikaren iguala; hasteko irakaslerik ez dago... Zer berri eskaintzen du Mintzalagunak?

Mintzalagunak euskal hiztunen arteko elkarrikeria eta hartu-emana bultzatu nahi ditu. Mintzasaioetan ez da irakasle-ikasle harremana landuko, hiztunen arteko parez pareko harremana baizik. Hala ere, talde bakoitzaren dinamika eta parte-hartzaileen "rola" eurek adostu beharko dute (guztien helburuak bateratu, elkarri zuzenketak nola egin...).

Euskara mingainean dantzan hasteko helburua du egitasmoak. Nola animatuko zenituzke euskaraz mintzatu nahi duten lagun lotsatiak, matrikulatu edo ez zalantzan dabilen horiek, alegia?

Mintzalagunaren ezaugarri nagusia aisialdian garatzen den proiektu bat dela da, eta alde horretatik, euskara ezagutzeko eta batik bat, erabiltzeko tresna eraginkorra dela. Motibazioari dagokionez ere horrek eragin zuzena du, programa nola-bait bakoitzaren beharretara egokitzen baita. Konpromiso maila txikiarekin (astean gutxienez ordubete euskaraz hitz egitea) emaitza asko lortu daitezke.

"mintzasaioetan ez da irakasle-ikasle harremana landuko, hiztunen arteko parez parekoa baizik"

Matrikulatzeko epeak, lekuak, zeintzuk dira, eta kuotarik ordaindu beharra dago?

Gasteizen Mintzalaguna programa ezagutarazteko ekitaldia urriaren 9an egingo da eta matrikulazio kanpaina urriaren 15etik azaroaren 15era luzatuko da. Izena emateko, kuota "sinboliko" bat ordaindu beharko da baina esan behar da, diru hori antolatuko diren ekintza osagarrietako mintzalagunaren gastuak betetzeko bideratuko dela. Mintzalaguneko taldeen mintzasaioak, alabaina, datorren urteko urtarilean abiatuko dira.

Hortaz, zein fasetan dago egitasmoa egun?

Egun, publizitate eta sentsibilizazio kanpainan dihardugu buru-belarri: Mintzalaguna Gasteizko kaleetara egokitu nahi dugu eta horretarako, ezinbestekoa zaigu tokian tokiko beharrak aztertu eta




MINTZALAGUNA

"programa nola-bait bakoitzaren beharretara egokitzen da"

programara egokitzea (euskaltegi-tako ikasleen egoera, euskara elkarten helburuak, entitate pribatu- en babesa, komunikabide- en arreta...). Oso garrantzitsua da egitasmoa Gasteizen ezagutaraztea proiektuak ahalik eta mintzalagun gehiago izan ditzan. Euskaraz hitz egiteko ohitura duen jendearen inplikazioa ere oso erabakigarria da programari begira eta egia esan, arlo honetan ere lan asko egin beharko dugu. Tamalez, askotan euskaldun zaharrak ez dira jabetzen euskaldun berrien ahaleginaz eta egoeraz, baina egia esan, guztiok gara hizkuntza beraren erabiltzaile eta harreman sare hauek indartu egin behar dira. Mintzalagunak horretarako aukera paregabea ere eskaintzen du. Bestalde, beste hiri eta herrietan proiektu honek ikusten duen harrera ona ikusita, Gasteizen ere arrakastatsua izango dela aurreikus daiteke eta bereziki arrakastatsua mintzalagunentzat, baina baita euskalgintzan lanean ari diren beste hainbat talde eta eragilerentzat ere.

Mintza Eguna antolatu da azken bi urteetan, lehenik Iruñerrian eta oste-



an Donostian, Gasteizen horrelakorik aurreikusten da etorkizun batean?

Mintza Eguna hainbat lekutako mintzalagunak elkartzeko egun handia da eta normalean, ikasturte bukaera inguruan egin ohi da. Mintza Egunaren bitartez, batetik, tokian tokiko egitasmoetan parte hartzen dutenek mugimendu bateratu baten kide direla ikusi eta sentitzeko aukera izango dute eta bestetik, mintzapraktikak duen aisialdiko alde ludikoa ere azpimarratu nahi da. Eta zergatik ez, baliteke etorkizunean Mintza Eguna Gasteizen antolatzea, baina horretarako lehendabizi Mintzalaguna programak Gasteizen izango duen erantzuna ikusi beharko da. Denon esku dago Gasteizko Mintzalagunaren arrakasta! ■



>egoitza:
geu elkarte&aldizkaria
pedro asua 2-3. 01008 gasteiz

>e-posta:
mintzalaguna@geugasteiz.com

>koordinatzailea:
mikel ayerbe, 692730444

>antolatzaileak:
euskaltzaleon elkargunea (ika, aek, ehe, euskharan, geu) & ebpn (gasteizko udalaren euskara zerbitzua)

>kudeatzailea:
geu elkarte

>eragileak:
euskaltzaleon elkargunea, ebpn, bai&by, udaberria, hala bedi, olabide ikastola, dna, ...

>aurkezpena:
urriak 9

>matrikulazioa:
urriak 15 - azaroak 15

>mintzasaioak:
2008ko urtarriletik aurrera.

>logoa:
dalvez



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



EUSKARAZ, BUEY!

TESTUA: LEIRE VENTAS

EUSKAL HERRIAREKIN ORAIN ARTE INOLAKO LOTURARIK IZAN GABEKO EHUN BAT MEXIKARREK EUSKARA IKASTEN DIHARDUTE Df HIRIBIRUAN. EGITASMOA EUSKO JAURLARITZAREN ETÀ BERTAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ARTEKO HITZAMENETIK SORTU ZEN, DUELA HIRU URTE.

Tekilak, garagardoak eta ronak busti dute Edgar Lopezen 26. urtebetetze festa; zangoak eta mihiak lotsaren kateetatik askatu, gogo piztu eta ausardia elikatu.

Edarien izotzak urratutako eztariek ordenagailutik datozen abestiak errepikatzen dituzte behar baino ozenago: Cafe Tacuba mexikarren *Ingrata*, Argentinako Babasnikoen *Luces*, Fito Paez, Sabina... "Paradisu Zineman ikusiko garaaaaaa", oihu egin du festako protagonistak. Mozkortzen ari ote naiz? "...ametsak formatzen diren materialarekin egina dago", jarraitu du Edgarrek, aho kordak lehertu beharrean. Ongi entzun dut. Tekila baino mexikarragoa den mutilak—guraso mexikarrak, aitona-amona mexikarrak, birraitona-birramona mexikarrak ditu— hitzez hitz daki Joxe Ripiauren abesti ezaguna. "Negu Gorriak taldearen pare bat ere badakit, eta Sagarroirenak ari naiz orain ikasten", aipatu du, gaztelaniaz, abestia amaitutakoan.

Edgarrena bitxikeria hutsa zela pentsatuz oheratu nintzen goizalde hartan. Baina oker nenbilen. Eta, zenbait aste geroago, nire ezjakintasunak errealitatearekin topo egin zuen, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko (UNAM) gela batean.

Atzerriko Hizkuntzen
Irakaskuntza Gunea

"Nik ere loroen moduan abesten nituen Kortaturen abestiak", dio Maribel Ortégak, Letra Klasikoak ikasten ari den 24 urteko neska mexikarrak. Artean, bere 22

ikaskideek *ukan* aditzaren paradigmarekin borrokan dihardute.

"Bitxikeria linguistiko hori" ikastea obsesio bihurtu zaio Maribeli. Eta horretan ari da, joan den urteko irailetik, astean hiru-tan, Mexiko hiriburuko Atzerriko Hizkuntzen Irakaskuntza Gunean.

Introducción a la cultura y lengua vasca izena du ikastaroak. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eta UNAMek sinatutako akordio batetik sortu zen egitasmoa, 2004-2005 ikasturtean. Azken ikasturtean ehun bat ikasle aritu dira.

Bertan, hizkuntzaz gain, euskal historiaren, geografiaren, mitologiaren, gastronomiaren, kirolaren, literaturaren eta gaitzatzeko kultur ezaugarrien oinarritzko kontuak ere irakasten ditu Gurutzne Etxeberria amezketarrak.

Asteazkeneo, 16:00etatik 18:30era elkartzen da taldeetako bat. Haien artean, *bitxikeria linguistikoak* bildumazten dituen Maribel, hizkuntza gutxituen zale Antonia Hernandez, gune horretan gaztelaniako irakasle dabilen Excelsa Del Pino...

Gelako 23 ikasleetako batek berak ere ez ditu arbaso euskaldunak. Juan Jose Ramirez familiako belaunaldiren batean izango ziren, akaso, Euskal Herrietik Mexikora joandakoak, baina berak ere ez daki: "Sarritan aipatu didate nire bigarren abizenak euskal jatorri duela: Escarza". Hala ere, euskara ikastera ez du horrek erakarri. Argi dio 26 urteko gazteak: "Mexikon ez dakigu askorik Euskal Herriaz; abertzaletasunaren inguruko


kontuak dira gehienak, eta komunikabideek esandakoak, gainera. Partzial samarra dela uste dut, eta arazoa sakon sakon ezagutzeko asmoa dut". Eskolak horretan laguntzen omen dio.

Ikasle isilenetakoa da Ramirez. Gainontzekoak *izan* aditza ozen deklinatzen saiatzen diren bitartean, bera esku artean duen paperari begira dago adi-adi. "Konplexu samarra zait; nire logika gramatikak ez dit balio", dio apal. "Lehenago katalana errebisatzen aritu nintzen, eta hor bai, gaztelaniaren eskemak zentzua zuen", kexu da Ramirez. Dena den, gustukoa duela dio, eta aurrerapenak somatu omen ditu. Noizean behin, gainera, euskaldunen seme —eta lagun— batekin praktikatzeko aukera izaten du. Nahiz eta lagunak, hasieran, ideia alda zezan eskatu zion: "Zergatik ari zara munduko leku bakar batean hitz egiten den hizkuntza ikasten?", galdetu omen zion.

Halakoak entzuten ohituta dago Antonia Hernandez ere. Koreera ikasten ari zela, etengabe entzun behar izan zituen hizkuntza haren erabilkortasunari buruzko galderak. "Ezohizkoa denak izugarri erakartzen nau", dio Hernandezek.

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza Gurutzne Etxeberria harrituta dago ikastaroaren arrakastekin. Amezketa hau 2005ko irailean iritsi zen Mexikora, Eusko Jaurlaritzak kontratatuta, UNAMen euskara irakasteko. Esperientzia zabala zuen: Euskal Filologian lizentziatua da, itzul-





pengintza eta frantsesa ikasi zituen Paris-ko Sorbona unibertsitatean, eta 12 urtez eskolak eman zituen euskaltegian.

"Iritsi nintzenean ez nekien non eta norekin biziko nintzen. Seguru neukan bakarria eskolen kontua zen", dio aspaldiko kontuez ariko balitz bezala. Laster konturatu zen, ordea, dena egiteke zegoela. "Zenbat ikasle dauzkatz?", galdetu zuen. Erantzuna: "Oraindik ez dago ikaslerik".

"Kartelak egin eta paretan jarri ere egin behar izan nituen". Ez zen, beraz, oso baikorra, Atzerriko Hizkuntzen Irakaskuntza Gune-ko korridoreak Txindokiko eta Donostiako argazkiz bete zituen.

Erantzuna, ordea, izugarria izan zen. Lehen deialdian 52 ikasle matrikulatu ziren, eta beste talde bat ere osatu behar izan zuten, 47koa. Are gehiago, proiektuak UNAMen eremuak gainditu ditu: Pueblako eta Santa Feko (Mexiko hiriburuko luxuzko auzoa) Iberoamerikar unibertsitateek horrelako programa bat gehitzeko interesa agertu dute.

Musikarekin hasi gara, eta musikarekin bukatuko dugu. "Kortatu, Negu Gorriak, Joxe Ripiau eta beste zenbait talde ezagutzen dituzte ikasleek, eta abestien letrak itzultzeko eskatu izan didate; Muguruzata-rrak idolotzat dituzte", dio Gurutznek.



SOWETOko gazteen artean arrakasta handia lortu du *kirol* arriskutsu batek: martxan dabilzan trenetako sabaietan ibiltzea. Izena ere jarri diote gazte hegoafrikarrek: *trenetan surfeatzea*. Ohitura honek zenbait gazteren heriotza eragin du. Pobreziak, langabeziak, bazterketak... eraikitako Soweton gazteak heriotzarekin surfean aritzea ez da kasualitatea.



TOKIOko gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dute ordenagailua. Sakeleko telefonoak ordenagailuen lekua hartzen ari dira. Irakurtzeko, sarean ibiltzeko, bideojokoetan jolasteko, posta irakurtzeko edo bideoak ikusteko sakeleko telefonoak erabiltzen dituzte. Lan egiteko ez bada, gazteek ez dute ordenagailua behar. Zenbait adituk kezka agertu dute; kontraesana dirudien arren, informatikaz tutik ere ez dakiten gazteak sor ditzakeelako teknologiaren garapenak.

gaztezulo.com

Eduki berriak egunero

sexua·gaupasa·egun pasa·musika·sarezulo·hitzordua·zinema·ikasi bai, baina·mundua·fotografikoak·literatura·teiltatupea·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeak·komikiak

KREA espresio garaikidea

arte, kultura, sormena eta prestakuntza uztartzearen emaitza

Diziplina artistikoek elkarren arteko hartu-eman izango dute KREAn. Zortzi mila metro karratu izango dituen egoitza honetan artistek behar dituzten ekipamendu guztiak aurkituko dituzte euren proiektuak aurrera eraman ahal izateko.



araceli de la horra, zuzendaria



oihana blanco, komunikazio arduraduna

t. naroa cuesta a. edorta sanz & KREA

Vital Kutxa-ren Gizarte Ekintzaren proiektu honek kultura eta sorkuntza bateratuko ditu egoitza miresgarri batean. KREA Espresio Garaikidea-k sortzaile eta profesionalei aukera paregabea eskainiko die euren proiektu artistikoak burutzeko.

Prestakuntza arloa ere bereganatzen du egitasmo honek; teknika eta kontzeptu garaikideenak artisten eskura jarritz. Arte plastikoak, zinema, musika, literatura, dantza, antzerkia..., sorkuntza eremu guztiek izango dute euren lekua KREAn.

Araceli de la Horren zuzendaritzapean kulturaren mapan letra larriz agertuko da GASTEIZ. Gertuko artistek euren aukera izateko jaio da KREA, baita euren lana hedatzeko ere. Euskara, gaztelera eta ingelesa izango dira Betoñoko komentu zaharrean entzungo diren hiru hizkuntzak; gertuko eta urrutikoaren arteko bizikidetza gauzatuz.

Diziplina artistikoen bizikidetzak eskatzen duen malgutasuna

Diziplina artistiko bakoitzari egokitu dakioken espazioaren bila aritu dira arkitektoak. Irudimena eta artea elkartuz milaka funtzio eman baitzaizkio gune bakar bati.

KREAk hiru gune nagusi izango ditu eta bertan gauzatuko dira jarduerak nagusiak: klustroan, kaperan eta lorategian. Eraberritu osteko komentuan sormenerako, prestakuntzarako eta hedapenerako espazioak egokituko dira. Bestetik, informazio gunea, denda, auditorioa, erakusketa aretoa, kafetegia eta jatetxea eraikin berrian antolatuko dira. Klustroaren erdialdean dagoen barne zonalde irekian mediateka eta liburutegia eraikiko dira.

Lorategia zeharkatuz gero, Antso Jakituna Fundazioaren egoitza aurkituko dugu, antzina komentuko hilerria kokatuta zegoen leku berean.

Bitxirik berezienak

Kafetegia eta jatetxea hartuko dituen kristalezko egituratik Gasteizko alde zaharra ikusteko aukera egongo da. Egitura honen alboetan "musika kaxak" kokatuko dira. Agian, eraikin osoan egongo den lekuri intimo eta berezie-

Solairuz solairu

Kultura-sormeneko zentro honek zazpi solairu izango ditu orotara. Egituraketa berezia da oso eta emaitza harrigarria izango dela ziurtatu dute.

- **sotoko bigarren solairua:** kamerinoak, biltegia eta eszenatokia.

- **sotoko lehenengo solairua:** erakusketa aretoa, lan gunee bi eta auditorioa.

- **beheko solairua:** balio anitzeko hiru areto, teknologia berrien garapenerako beste hiru gunee, ikustaldi aretoa, proiektuak garatzeko bi gela, kontsulta eta irakurketarako espazioa, elkarte desberdinek erabiltzeko bi gela eta kaperaren behealde, balio anizkuneko aretoa izango dena.

- **lehen solairua:** estudio tailerrak, dantza entseirako gelak, laborategiak, kapera eta administrazio bulegoak.

- **bigarren solairua:** irrati estudioa, ingurumen terraza, musika entseiatzeko aretoa, grabazio estudioa eta egoitza desberdinak.

- **hirugarren solairua:** hurrengo solairuetara igotzeko eskailerak, funtsezkoak oso.

- **laugarren solairua:** kafetegia eta barra zerbitzua.

- **bosgarren solairua:** jate-txea eta sukaldea.



Kristalezko sugeak komentu zaharra irentsi zuenean

2007 urtean hasi ziren Betoñoko komentu zaharra berreraikitzen eta 2009 urtearen hasieran egitasmo berri honek bere ibilbideari ekingo dio. Kulturara hurbiltzeko bidea eskainiz gain, sorkuntza eta prestakuntza artistikorako espazioa izango da KREA. Arte garaikidearen erreferente izan nahi du nazioartean.

Betoñoko Karmeldar Oinutsen komentu zahar neogotikoaren itxura guztiz aldatzen ari da eraikin berriaren lanak hasi zirenetik hona. Zer pentsatuko lukete bertan bizi izandako mojek beren komentuak izango duen itxura ikusiko balute?

Roberto Ercilla eta Miguel Angel Campo arkitektoek komentu zahar horren egitura errespetatu eta kristalezko suge liluragarria gehitu diote. Euren irudimena eta jakituria kulturaren zerbitzura jarri dute. Arkitektura zaharra eta modernoaren arteko dantza ikus-kizuna eskainiko du eraikin berritzaile honek. Harria eta kristala gozotasunez lastanduko dira lorategi zabal baten erdialdean.

na. Bertan, musika entzuteko aukeraz gain, literaturaz gozatzeko parada ere egongo da Andramari Katedrala zerumugan ikusten den bitartean.

Atsedenerako espazio ugari egongo dira KREAn, ingurumen terrazak, esate baterako; lasaitasuna izango da nagusi lore ezberdinen usainak nahastuko diren leku eroso honetan.

Lur azpian, eszenatokia aurkituko dugu, 180 pertsonarentzako lekua eta akustika ezin hobea izango duelarik. Bederatzi logela egongo dira, kanpoko artistak bertan hartuko dituztenak. Komentu zaharreko kaperari funtzio nagusiak eskainiko zaizkio, bertan bilerak, kontzertuak, kongresuak eta mota guztietako topaketak izango baitira.

KREaren eraikina inguratzen duen lorategiak ere zeresana ekarriko du. Milaka pertsonarentzako edukiera izango du eta zorua desnibeltan banatuta egongo da; une lasaia eta bizia izango da aldi berean. Irudikatzea zaila egiten zaionari, badaki nora jo behar duen...

Iraunkortasuna eta irisgarritasuna

Gai sozialak landuko dira KREaren egundoko eraikin honetan. Hala nola, zientzia, elkartasuna edo garapen iraunkorra presente egongo dira aurrera eramango diren proiektuetan. Era berean, eraikin harrigarri honen egituraketa kontzeptu horiek ere kontuan hartu dira: iraunkortasuna eta irisgarritasuna egituraren ardatz eta sostengu dira.

Sormen programen harrera bikaina

KREaren helbururik garrantzitsuena sorkuntzari laguntzea eta artistei behar dituzten baliabide guztiak erraztea da.

150 proiektu baino gehiago aurkeztu dira KREaren lehen sormen programak eskaintzen dituen beka lortu ahal izateko. Guztira, 72.000 euro banatuko ditu Caja Vital Kutzaren Gizarte Ekintzak sustatutako egitasmo honek.


Sorkuntza garaikidea sustatzea da KREaren helbururik behinena, eta horretarako bi beka mota garatu dituzte. Alde batetik, KREA GAZTEA dugu, non hogeita hamar urtetik beherako artistek 3 beka lortzeko ahalegina egingo duten. Bestetik, arte, musika, dantza edo antzerkiko ikerketa edo sorkuntzara bideraturiko KREA PROIEKTUAK izeneko 5 beka daude.

Beka hauen eskariak egin dituzten gehienak arabarrak dira, % 70 hain zuzen ere. Hala ere, kanpoko jendea ere helduko da KREAra, eta Betoñoko egoitzatik mundu zabalean hedatuko diren artistak irtengo dira. Aurten, zortzi artistak lortuko dituzte sormen beka eta Oihana Blanco KREAko prentsa arduradunaren esanetan, "jasotako proiektuen maila nahiko ona izan da, mailarik altuena 'KREA gaztea' eta musika arloan aurkitu ditugularik". ■



KREA birtuala: KREARED.COM

KREaren egoitza fisikoak, errealak, Betoñon kokatuta dagoenak, 2009ko hasieran zabalduko ditu ateak. Baina, jada KREaren bigarren egoitza zabalik dago, non eta Interneten. Egoitza birtuala, WWW.KREARED.COM helbidean aurki daiteke. KREArekin zerikusia duten albiste guztiak argitaratu eramaten dira bertan, eta galderaren bat izatekotan martxan jarri duten foroan erantzuna topatzeko aukera ere badago.





UDALEKU MUSIKALAK

Musika bai!, zaletasuna pizten

2004 urtetik aurrera Musika-Etxeak udaleku bereziak jartzen ditu ume gasteiztarren esku, 'Musika bai!' Udaleku musikalak, hain zuzen. Xabier Lizaso pianojolearen zuzendaritzapean dagoen Chopin Estudioa da egitasmoa gauzatzen duen enpresa. Asmoa, modu atseginean musikarekiko zaletasuna piztea haurren artean.



t. saioa fdz de arangiz a. chopin estudioa & geu

Gasteizko 350 ume inguruk udaleku berezi batzuetaz gozatzeko parada izan dute atzean utzi dugun udan. Izan ere, Xabier Lizaso pianojolearen zuzendaritzapean dagoen Chopin Estudioak, Gasteizko Udalarekin batera, antolatutako Musika Bai! Udaleku-etan parte hartu dute, musika, kantua eta dantza ardatz nagusiak diren horietan, hain zuzen. Horrela, bi astetan, egunean lau orduz, 4 eta 12 urte bitarteko haurrek euren sensibilitate artistikoa lantzeko aukera izan dute Musika-Etxean, euskaraz zein gaztele-raz.

Eta ikasitako guztia, udalekuen azken egunean ikasleek prestatutako jaialdian praktikan jartzen dute, hala nola, ikasitako kantak, koreografiak eta jokoak. Benetako artistak izango balira bezala.

Udalekuek irauten duten bi aste horietan, egunean lau ekintza ezberdin gauzatzen dituzte. Dantzako eta kantuko klasea, Xabier Lizaso pianojole oriotarraren esanetan, "musikan ahotsa tresna garrantzitsuen" delako. Horrez gain, soinketa klasea ere izaten dute umeek, musikaren testuinguruan "oso egokia" baita. Azkenik, jolas orduak eta kontzertu didaktikoek osatzen dute egun bakoitzeko plana. Oro har, musika estilo guztiak lantzen dira egitasmo honetan, Barrokotik hasita gaur egun arte. Baina beti ikasleak haurrak direla kontuan hartuz: "jolasa, marrazkia, pintura, mimoa, dantza, kantua... dira gure tresnak", diosku Lizasok.

Esperientzia hau ez da berria. Gasteizen 2004an jarri zen abian, "Musika-Etxeko zuzendari Pedro Elosegik Chopin Estudioak aurkeztutako ideia ontzat hartu zuenean", azaltzen du pianojoleak. Orain arte, Gasteizez gain, Donostia, Bilbo, Castro

Urdiales, Murtzia, Lekeitio eta Zarautz herrietan ere oso ondo ezagutzen dituzte udaleku berezi hauek. Jada, 2007an 1.200 ume parte hartu dute musikaz gozatzeko udaleku hauetan.





“ez da teoriarik ematen, den-dena praktikoa da”

“nik txikitan oso esperientzia txarra izan nuen musikarekin”

“musika bizitza bezalakoa da eta lehenik eta behin garrantzitsuena kantatzen has-tea da”



XABIER LIZASO,
pianojolea eta chopin estudioko zuzendaria:

“Tresna inportanteena ahotsa da”

Nola suertatu zen halako egitasmoa abian jartzeko ideia?

Idea orain dela 7 bat urte bururatu zitzaigun. Izan ere, nik urte asko daramatzat Estatu osoan umeei kontzertu didaktikoak ematen eta halako esperientzia bat urtean behin baino ez ematea eskasa zela iruditu zitzaigun enpresan. Horrela, udan 15 egunez musika lantzea oso egokia zela pentsatu genuen.

Udaleku musikalen helburua umeengan musikarekiko zaletasuna piztea da, baina nola lortzen duzue hau?

Oso inportantea da umeak ez erretzea. Hau da, udalekuak soilik goizez ematea eta egunean planteatzen ziren ekintzak haurrentzat entretenigarriak izatea funtsezkoa zela ikusi genuen. Horregatik, ez da teoriarik ematen, den-dena praktikoa da. Egia esan, nik txikitan oso esperientzia txarra izan nuen musikarekin. Ez nuen musika ikasi nahi, gurasoek behartu ninduten eta beti gogoan daukat garai hartan nuen musikarekiko gorroto hura. Hala ere, 15 urte nituela oso irakasle jatorra izan nuen eta honek nolabait musika beste modu batez ikusten irakatsi zidan. Gustua hartu eta egun honetaz bizi naiz.

Zer ikasten dute umeek 15 egun hauetan?

Egun hauetan haurrek ahotsa lantzen dute, ez dute instrumenturik jotzen. Musika bizitza bezalakoa da eta lehenik eta behin garrantzitsuena kantatzen has-tea da. Ondoren ikasiko duzu kanta hori idazten, paper batean irakurtzen eta instrumentuak jotzen. Baina tresna inportanteena ahotsa da. Horrez gain, udaleku hauek oso esperientzia polita dira txikiengiztat. Eszenatoki baten gainean igotzen dira, gertutik ikusten dute zenbat lan dagoen ikuskizun baten atzean eta nolakoa den aktore, abeslari zein dantzarien lana. Ikuskizuna hasi aurretik pasatzen

diren nerbioak ere euren baitan bizi izaten dituzte.

Zein izan da Gasteizen udalekuek izan duten harrera?

Harrigarria benetan. Normalean hasieran gauza berri bat ateratzen denean jende gutxi ematen du izena. Baina ez dakit zergatik Gasteizen lehenengo urtetik jende mordo bat apuntatu zen eta beti izan dugu toperaino. Urtero umeak udalekuetatik kanpo geratzen dira, plazak mugatuak baitira. Aurten, esaterako, 500 ume inguruk izena eman zuten, baina soilik 240 plaza zeuden. Dena den, Gasteizko Udalak, Musika-Etxeko gelak erabiltzeaz gain, Luis Aranburu musika-eskola ere erabiltzeko erabakia hartu zuen eta ume kopuru gehiagok parte hartu ahal izan du.

Nolakoa da umeekin lan egitearen esperientzia?

Irakasle gehienek eta nik neuk ere umeek sorpresaz harrapatzen gaituztela diogu, oso proiektu azkarra delako, bi astetan jaialdi bat prestatu behar dutelako. Baina haxe da nire ustez proiektu honen arrakastaren gakoa, azkartasun hori, hain zuzen. Irakasleentzat oso proiektu zaila da baina ikasleentzat oso bizia eta horregatik ez dira aspertzen eta oso ondo pasatzen dute.

Udan Udaleku Musikalak, eta neguan, berriz, zer motako ekintzak eskaintzen dituzue?

Neguan Chopin Estudioak batez ere musika klasikoa lantzen du Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Gure asmoa, beti, musika klasikoa modu atseginean azaltzea da eta Madrilen edo Gipuzkoan egiten dugu lan batez ere. Jada 12 urte pasa dira hasi ginetik. Azken finean, gure helburua zaletasuna piztea da eta orain arte nahiko emaitza polita lortu dugu, baina horretarako oso ondo ezagutu behar duzu lantzen duzun adina ■

m. mundina



Gogoetarako tarterik?

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

Oporretan denbora luzeagoa ukan dugu lasai pentsatzeko. Teorian, jakina, uda denboraldian inoiz baino egunkari edota liburu gutiago irakurtzen baita. Antza, betarik bai, indarririk ez. Eta, aukeran, atsedena.

Arabar historia, halere, ez da udan leunago pausatzen. Hots, ez dezagun pentsa gure historia Iruña-Veleian, 1200 edo 1936an gertatu zenarekin amaitzen denik. Bai, zera!

Adibide gisa, irakurri jada historia dena, 'Espasa' entziklopedia ospetsuak 2003an argitarat eman zuena: "Eusquera: Lengua vasca, hablada por los naturales de las provincias de Álava, Vizcaya y Guipúzcoa y por parte de los de Navarra y del territorio vasco francés. Su origen es objeto de discusión [...] En la actualidad sus dialectos se intentan unificar en el euskera batua".

Alde batetik, hau poza, duela bakarrik lau urte Araban jaiotzen zen orok euskaraz hitz egiten omen baitzuen! Bertzaldetik, ai ene, testua behin irakurri eta tira, birritan, hirutan egin eta bururat hamaika gauza etorri zait, gero eta gaiztoagoak...

Honatx, bertze ale batean, zehatzago, Arabari buruz dioena:

"Álava: [...] únicamente se habla el eusquera en los valles montañoses del norte de la provincia". Noski, denok dakigunez 'Geu' hilabetekari zoragarri hau "únicamente" Aramaion irakurtzen delakotz...

Ez dago harritzerik, horrela idazten ohi baita menperaturik bizi diren gizataldeen historia ■

"Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?" (XVII)

Gogoetarako ere izen sorta eskaini nahi dugu, bortxaz erdaldundu zituzten gure lehenagokoek "Quejana", "Quejo", "Quijera" eta "Quilchano" deitu behar ohi zutenak.

Lehena, Aiarako "Quejana"; XIV. mendean "Quijana" idatzi zuten, eta bi mende lehenago "Quejona". 1095ean, baina, "Kexana" da agirietan. Egun, Euskaltzaindiak, "Kexaa" onesten du.

Gaubea inguruko "Quejo", bere aldetik, "Quexo" zen mende luzez, 1087an "Kesco" dugularik. Bada, Euskaltzaindiak euskaraz "Quejo" deitu behar diogula dio.

Amaitzeko, Ebro gaineko Sobron aldeko "Quijera" herrixka "Quixera" zen 1562an, baita "Cassiera" ere 913an; eta "Quilchano" bere horretan ageri da XIII. mendean, urte batzuk beranduago "Quelchano" zen arren. Hori bai, 1257an "Gulziano" idatzi zuten... Herrixka hori Burguko Argomaiz partean zen.

bideojokoa

'kao: sumendiko sekretua'

10 urtetik aurrera

egilea: tate multimedia

euskarazko bertsioa: elhuyar fundazioa-2007-09-27

PCrako - 24,95 euro



'kao: sumendiko sekretua' ordenagailurako bideojokoa argitaratu zuen ekainean elhuyar fundazioak. 3Dko teknologia erabiltzen duen aisialdirako cd-roma da, eta 10 urtetik aurrerako gaztetxoentzako dago pentsatuta. tate multimedia-enpresa poloniarrek egin du jatorrizko jokoa, eta hainbat hizkuntzatarari ari dira itzultzen. euskarazko bertsioa elhuyar fundazioak kaleratu du. www.elhuyar.org/kao web gunean, horri buruzko informazio gehiago egoteaz gain, jokoa probatu ere proba daiteke.

jokoaren protagonista kao izeneko kanguru bat da. hamar eremutan lagundu behar dio jokalaria kaori bere eginkizuna gauzatzen. bidaia luze baten ostean, uhartean duen etxera itzuli da kao, atsedean hartzera, baina ezin: bere lagun tximista sumendi baten barrura erori da eta hor bizi diren labazko munstroak esnatu ditu. munstro horiek uhartea suntsitzea erabaki dute, eta hango biztanleak oso izututa daude. kaoren eginkizuna da munstroak garaitzea, uharteko xamanak emango dizkion argibideei jarraituz. jokalaria ez du aspertzeko aukerarik izango, errealtate birtualeko lasterketak, puzzleak osatu, motordun txalupetan ibili, airean borrokatu... egin beharko baitu hamar eremu horietan.

ikus-entzunezko efektu izugarriak ditu jokoak, 3Dko teknologiari esker: palmeren mugimendua nabaritzen da, kaoren hanka-arrastoak ikusten dira bidea egin ahala, egunekeo eta gaueko zikloak minutu gutxiren buruan bereizten dira...

elhuyar eta bideojokogintza

euskarazko aisialdiko bideojokoetan zegoen hutsunea ikusirik, iaz ekin zion zeregin horri elhuyarrek (armix baso magikoan / 5-8 urte), aurtan, euskarazko bigarren bideojoko honekin (kao: sumendiko sekretua) hutsune hori betetzen ahaleginduz.

www.elhuyar.org

- lagundu kaori bere laguna bilatzen; bildu lau gailu magiko, eta aurkitu sumendiko sekretua!
- jolastu hamar misiotan, egin errealtate birtualeko lasterketak, osatu puzzleak, mugitu batera eta bestera motordun txalupekin eta borrokatu airean, hori guztia, joko bakar batean!
- aisialdirako jokoa
- ordenagailurako bideo-jokoa

PCaren gutxieneko sistema-eskakizuna

-1 GHz-eko CPUa, 256 MBko RAMa, 500 MB libre diskoan

-Windows 0x/ME/200/XP

-DirectX 8.1ekin edo bertsio berriagoekin bateragarriak diren grafiko-txartela (16 Mbko RAMa) eta soinu-txartela

-4x CD-ROM/DVD unitatea

cd

'esperantzara kondenatua'

gari

elkar-2007

www.elkarlanean.com



berriro ere jon maia eta jon benitorekin elkarlanean aritu da gari disko honetarako. hauetaz gain roberto mosok eta jose luis padronek ere kolaboratu dute. azken honen olerkiak ematen dio izenburu diskoari: 'esperantzara kondenatua'. barrurako begirada dugu honako diskoa, ildo pertsonal eta berezkoa bizitzaren abentura zailerantz, non maitasuna, norbere buruaren bila aritzea, emozio mingarriak, edertasunaren espejismoa... sakonki ikutzen diren; guztien ginetik esperantza agertzen da berriro hasi ahal izteko bitartekari bezala, bizirik jarraitu ahal izateko baliabide bezala: gaur, hemen eta orain.

diskoan, besteak beste, fran iturbe gitarrajoleak, hala nola ivan ferreiro (los piratas taldeko partaide ohia) kantariak hartu dute parte nabarmena eta argazkiak (azala barne) alberto garcia-alixek burutu ditu (1999an argazkigintzako sari nazionalaren irabazlea).

GEU ALDIZKARIAK 3 ALE (KAO: SUMENDIKO SEKRETUA) ZOZKETATZEN DITU

2 GALDERA HAUEK EGOKI ERANTZUTEN DUZUENEN ARTEAN:

ZER DA KAO PROTAGONISTA? NOLA IZENA DU BERE LAGUNAK?

ERANTZUNAK:
GEU@GEUGASTEIZ.COM
[urriaren 15a bitartera]

PERISCOPIO. PACO VALDERRAMA, ZUZENDARIA: “Hausnarketarako testuinguru kulturala bilakatzea da Periscopioaren asmoa”

Urriaren 18tik abenduaren 9ra bitartean Gasteizko txoko anitzek prentsa-argazki punta-puntakoenak eskainiko dituzte, ‘Periscopio, Prentsa-argazkilaritza begira’ egitasmoari esker.

“elliott erwitt
argazkilariaren
atzera begirako
erakusketa nabar-
menduko nuke”

“hitzaldiak eta tai-
lerrak ere antolatu
ditugu”

“amateurrentzako
lehiaketa ‘gure
lore kuttuna’ da”

“aurten modaren
argazkilaritza eka-
rri nahi izan dugu”

t. saioa fdz de arangiz

a. edorta sanz

Horrela, munduan barrena jazotzen eta bizi diren egoera latzak zein atseginak gertutik sentitzeko parada izango du bisitariak. Ekintza honen nondik-norakoak hobeto ezagutzeko asmoz, egitasmoaren arduradun Paco Valderrama kazetariarekin solas egin dugu.

Aurten ere Gasteiz prentsa-argazkilaritzaren hiriburu bilakatuko da. World Press Photo erakusketa ezagunena da, baina zein da zure aburuz bereziena?


Batez ere Vital Kutxa Fundazioko Aretoan ikusgai egongo den Elliott Erwitt argazkilariaren atzera begirako erakusketa nabarmenduko nuke, oso berezia baita. Argazkilari honek 79 urte ditu, eurofrantziarra da baina New Yorken bizi dena eta berak egindako 140 argazki inguru erakutsiko ditugu, 1948 eta 2000 urte bitartean eginak. Erwitt-ek Magnum argazki-agentzia famatuan lan egin zuen, Robert Kappak eskatuta. Hortaz, mundu mailako jenio ukazina dugu Erwitt eta prentsa-argazkilaritzaren kontzeptu ezagunena apurtzen duela izan

daiteke bere ezaugarri nagusia. Hau da, gatazkako argazkilaritza gogorretik urrunduz, modu atseginez, eta kasu askotan dibertigarrian, egiten du kritika soziala. Horrela, atsegintasuna da nagusi bere irudietan eta horregatik, egokia da oso erakusketa hau Periscopioaren ibilbidean, esaterako, aurtengo World Press Photo bereziki latza eta gogorra baitator. Beraz, erakusketa honek modu zentzudun batean atsedan hartzeko balio izango dio bisitariari.

Guztira 8 erakusketa inguru topatuko ditu bisitariak. Zer motakoak izango dira hauek?

Adibidez, Hiria Gunea Aretoan Aga Khan Trust for Cultura Fundazioko zuzendari Luis Monreal historiagilearen ‘Ummah, Islam-aren beste aurpegia’ erakusketa egongo da. Fundazio honek munduko herrialde musulman guztien alde lan egiten du eta Monrealek Islamaren alderdi guztiak irudikatu ditu, gatazken Islam hori alde batera utziz eta eguneroko Islam horri so eginez. Horrela, zuri-beltzezko argazki zoragarriak ikusiko ditugu bertan, non Afrikako zein Indiako mezkita ere agertuko diren. Erlijio honen alde ezberdinetatik zehar egindako ibilbidea dugu erakusketa hau.





Erakusketez gain, aldi bereko ekintzak ere egongo al dira?

Hitzaldiak eta tailerrak ere antolatu ditugu. Esaterako, Alvaro Ibarra Zabaleta argazkilari bilbotarra egongo da gure artean. Gazte hau eskarmentu handiko prentsa-argazkilaria da eta jada gatazkan dauden munduko txoko askotako irudiak hartu ditu. Batetik, bere lana erakusketa batean erakusten eta bestetik, hitzaldiak eta tailerrak ematen. Azaroaren 7an, adibidez, prentsa-argazkilaritzaren etorkizuna zalantzan jarriko du hitzaldi batean eta aurrerago, Krea erakundearekin batera, gatazkan dagoen herrialde batean lan egiteko eta hartu beharreko jarreraren inguruan emango du tailerra. Bestetik, aipatutako Luis Monrealen hitzaldia ere izango dugu, beste ekintzen artean.

Aurten beritasunak egon dira amateurrentzako argazki lehiaketan ere, ezta?

Lehiaketa hau "gure lore kuttuna" da. Iaz parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu bihotzez, guztira 93 erakusketa aurkeztu baitziren. Hori dela eta, aurten parte-hartze hori saritzea erabaki dugu eta sariak bost bider handitu ditugu.

5.000 euroko sariak eta argazki tresnak banatuko ditugu parte-hartzaileen artean. Horrez gain, publikoaren iritzia ere kontuan hartu nahi dugu.

Zeintzuk dira jarraitzen dituzuen irizpideak Periscopion parte hartuko duten erakusketak aukeratzeko orduan?

Prensa-argazkilaritzan suertatzen diren jazoera guztien jakinaren gainean egoten gara eta horretarako Internet izaten da gure tresna erabiliena. Hori esker, munduko argazki-agentzia onenekin jartzen gara harremanetan, bestelako argazkilaritza-jaialdietan egiten dena ikusteko aukera izaten dugu eta agentzia txikiak egiten dutena miatzen dugu, besteak beste. Hortaz, begiratu, begiratu eta begiratu egiten dugu. Baina betiere, alde ekonomikoa hartu behar dugu kontuan, askotan hainbat erakusketa Gasteiza ekartzea ezinezkoa suertatzen baita.

Dena den, bestetik guk geuk ere ekoizten ditugu hainbat erakusketa. Hau da, interesgarri suertatzen zaigun argazkilari batekin jartzen gara harremanetan, bere materiala ikusi eta erakusketa osatuko duten irudiak aukeratzeko ditugu. Finean, denetarik egotea bilatzen dugu, gaien aniztasuna alegia. Aurten, esaterako, modaren argazkilaritza ekarri nahi izan dugu, argazkilaritza mota honek dakarren elementu polemiko hori sartu nahian.

Bide horretan, Periscopio bisitarientzat hausnartarako, polemikarako, barre egiteko, ondo pasatzeko... beste testuinguru kulturala bilakatzea da gure asmoa. Finean, jendeak objektiboan bidezko munduaren ikuspegi hau aztertzea da gure nahia.

Nola jasotzen dute gasteiztarrek Periscopio?

Iaz honako konpromisoa hartu genuen; txarto ateratzekotan ez genuen esperientzia errepikatuko. Izan ere, erakundeek (Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Vital Kutxa, Naturgas Energia eta Cultural Alava) eta komunikabideek laguntza handia eman ziguten eta erakusketak izandako 80.000 bisitek aurten berriro ere egitera animatu gaituzte.



SAREINAK

Euskara, feminismoa eta literatura sarean josiak

ATALAK

gure iritzi apalean

Euskal literaturaren historia berrikusteko aukera ematen du atal honek elkarrizketa bitxi bidez. Esate baterako, euskal literaturaren historiako lehen emakumearen, Bizenta Mogelen, bizitzaren alor ezezagunenak argira irteten dira solasaldi hauetako batean.

feminismoaren historiak

Feminismoaren baitan dauden korrante desberdinak ezagutu eta jorrazteko atala da honako hau. Pentsalari feministak, korrante feministak eta mugimendu feministaren historia ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen da bertan.

magalpetatik

Blogaren ardatza eta mamia; euskal literaturari buruzko kritika literario feministaren atala da.

mundu munduka

Emakume idazleak mundu osoan zehar aurki daitezkeen heinean, literatura horri buruzko kritika feminista sarearen bitartez munduan zehar zabaltzea da Sareinak-en atal honen eginkizuna.

leihatik begira

Leihoa zabalik eta kanpoan gertatzen denaren berri izateko irrikaz esnatu ohi direnentzat atal aproposa da hau. Bertan, elkarrizketak, berriak, erreportaiak... aurki daitezke, betiere, gaurkotasunari lotuak. Hala nola, Ana Urkizarekin eta Nuria Rita Sebastianekin izandako solasaldien berri ematen da atal honetan.

amatriuska

Blogaren barneko bloga. Zertarako? Oharrak, gogoetak, kolaborazioak, iritziak, sorkuntza lanak eta bestelakoak sartu ahal izateko.

metodologia feminista

Ikusmen arazoak ez dituztenek ere betaurreko moreak jantzi eta literaturari begiratzeko proposamena egiten da atal honetan.

<http://eibar.org/blog/sareinak>

Lau emakumeren egitasmoa da Sareinak. Laurak euskaldunak, feministak eta literaturazaleak. Soilik kontzeptu horiek uztartuz uler daiteke Sareinak literatur aldizkariaren xedea. Blog formatuko aldizkari honek literatur kritika ikuspuntu feministatik jorraztea eta euskal emakume idazleen lanak ezagutaraztea ditu helbururik behinenak.

t. naroa cuesta

a. sareinak

Amaia Alvarez Uria euskal filologoak, Gema Lasarte kazetariak, Iratxe Retolaza eta Josune Muñoz literatur kritikariek sortu dute Sareinak egitasmoa. 2006 urteko udaberria: bi lagun, kafea eta nola ez, solasaldia. Orduan hasi zen ereiten egitasmo berritzaile honen hazia. Literatur aldizkari euskalduna da Sareinak, Internet da bere esparrua eta feminista bere ikuspegia. Urtebete beranduago aldizkaria sarean zegoen, blog formatuan.

Aurkezpen ofiziala aurtengo martxoaren 3an egin zuten Lekeitioko kaian. Sareinak (saregileak bizkaieraz) jostorraztekin aritzen dira sareetan aurkitzen dituzten zuloak konpontzen. Euskal literaturak dituen zuloetatik amiltzen den emakumeen lana berreskuratzen saiatzen dira blog honen bidez. Portua aukeratu zuten aurkezpenerako, leku irekiagorik eta zabalagorik ez baitago. Horrela definitzen dute euren proiektua, irekia eta zabala. Interpretatzeko, kritikatzeko, transmititzeko... lekua sortu dute, ikuspuntua zabaltzea jomuga delarik. Euskal literatura zabaltzeko bidea aurkitu dute sarean, eta aldi berean, literatura unibertsala euskaraz jorrazteko aukera.



Amaia Alvarez Uria

"Blog honen helburuetako bat emakumei kulturen eta literaturan ukatu zaien presentzia berreskuratzea da, zor zaien lekua ematea" azaldu du Amaia Alvarez Uriak. Emakumeek lan itzela egin dute literaturan eta azkenaldi honetan birbalaratzen hasi da. "Sareinek sareek dituzten zuloak edo hutsuneak josten dituzte, sareak hedatzen edo ezagutarazten dituzte eta bitartean elkarri kontuak esaten dizkiote. Sarea literatura izan daiteke eta orratza ordenagailuaren saga...", diosku Amaia Alvarez Uriak.

Sareinak egitasmoa osatzen eta hedatzen joan da urte osoan zehar. Irakurleek euren testuak bidaltzen dituzte sareina@eibar.org helbidera, batetik, eta bestalde, blogan dagoen edozein testuri erantzuna atxikitzeko aukera

"sareinek sareek
dituzten zuloak edo
hutsuneak josten
dituzte, sareak heda-
tzen edo ezagutaraz-
ten dituzte eta bitarte-
an elkarri kontuak
esaten dizkiote..."

dago. Feministei, literaturazaleei, euskaldu-
nei, bloglariei..., jorratzen dituzten gaien
inguruko interesa duen orori proiektu hau
ezagutu eta bertan parte hartzeko gonbita
luzatzen diete Sareinak sortutako lau ema-
kume ausart hauek.

Euskara da bidea eta Internet tresna kritika
literario feministei buruz aritzeko. Amaia
Alvarez Uriak esan bezala, "literaturari
'bettaurreko moreekin' begirutzen diogu,



*Ozarratu bat
ozarratu bi
araina dator
portura berri
besigü lebatz
sardina ta atun
eta beste asko ganeñ*

ikuspegi feministatik berrirakurtzen dugu",

Egindako bidea baloratzeko orduan adjek-
tibo positiboak aipatzen dituzte soilik.
Taldekideen arteko konpromisoa eta lan egi-
teko gogoia nabaria da. Gainera, "blogak
harrera beroa izan du eta kolaborazioen

aberasgarritasuna ere nabarmentzekoa da",
Amaia Alvarez Uriaren esanetan. Urtean
zehar sortutako asmo berriei heltzeko ordua
da orain, Sareinak-en bidaia hasi baino ez
da egin, eta ziur luzea izango dela ■

Bai Euskarari Ziurtagiria

kalitatea

elkarlana

lehiakortasuna

balio erantsia

erantzukizun soziala

ziurtagiriaren elkartea

www.baieuskarari.org 902 430026



laguntzailea:

GEU

Bi itsasoren arteko kanala

Opor garaia iritsirik, bizikletaz bidaiatzeko gogo berriz ere piztu zitzagun. Ume batekin joateko ibilbide erreza eta lasai baten bila aritu ondoren, zeharo asmatu genuen. Aspalditik ezagutzen genuen Midi Kanalaren ondoan bizikletaz ibiltzeko bidea zegoela. Garona kanalaren ibilbidearen inguruko informazioa berriz, eskasagoa genuen, eta bide hau itxuraz, ez omen zegoen hain ongi. Geroago konturatu ginen errealitatea bestelakoa dela, Garonakoan zati asko inauguratu berriak ziren eta.

t. | a. mikel bringas

Kanalak

Midi Kanala

Garona Mediterraneoarekin lotzeko asmoa aspaldikoa da. Augusto enperadoreari burutik pasa zitzaion, eta beranduago Carlomagno, François I.ak eta Henri IV.ak ideia bera izan zuten. Ibilbide motzagoa lortzeaz gain, piraten mehatxuari ekiditzeko irtenbidea ere bazen.

1681ean, Louis XIV.aren garaian, Pierre-Paul Riquet-ek Midi Kanalaren eraikitzearen arduraduna izan zen txikitatit zuen ametsa betetz. Egun dabilen Europako kanalik zaharrena da, 1996an UNESCOk Gizateriaren Ondarearen zerrendan sartu zuen.

Tolosan hasi eta Agden bukatzen da, badia zabal bat igaro ondoren Sète-n itsasoratu.

Garona Kanala

Midi Kanalaren jarraipena da. Garona ibaitik hurbil doa eta ura handik hartzen du. 1838an hasi ziren kanala eraikitze lanak eta trenaren erabilpenak 1856an gelditu zituen. 53 eskulasa eraiki zituzten 128mko desnibela gainditzeko.

Midi kanalaren bukaeran, Tolosa hirian, du hasiera eta Castets-en-Dorthe herrian amaitzen da. Handik aurrera Atlantikora iristeko Garona ibaitik joan behar da.

Gaur egun, garai bateko garraiobide helburua albo batera utzita, bi kanalak turismoarako baliabidea dira nagusiki. Kanalen ondoko herri askotan alokatzeko untiak edo bizikletak aurkitzen dira, eta arraun edo piraguisimo kirol elkarte askok ere erabiltzen dituzte.



Bizikleta ibilbidea

Bordeletik Sauveterre-de-Guyenne herriraino 55 km-ko bidegorria dago. Handik Garona kanalaren hasieraraino errepide txikitatit berehala iristen da. Hortik aurrera ia ibilbide osoa kanalaren ondoan doa. Kanalaren ondoko paisaia mahastiak eta labore soroak azaltzen dira askotan. Kanalak herri txiki ugari zeharkatzen ditu, hauetako askotan tokirik garrantzitsuena kanala bera izaten da. Beste batzuk berriz, turismo gune garrantzitsuak dira: Moissac, Tolosa, Castelnaudary, Carcassonne edo Agde.

Ume batekin bizibidaiatzea

Bidaia bukatu ondoren guraso bizikletazaleen topaketatxoetara joan ginen (www.encuentrillos.org). Garrotxan dagoen Les Presen Herrian izan ziren. Adin guztietako umeak eta bizikletaz joateko sistema guztiak zeuden han: aurreko edo atzeko aulkiak, gurditxoak, bizikleta txikiak garraitzeko

loturak, tandem bereziak... Zorionez gero eta guraso gehiago animatzen dira seme-ala-bekin bizikletaz ibiltzera, eta horren eraginez bidaia errezteko tramankuluen merkaturak zabaltzen ari da.

Eki oraindik gurditxoan joaten da. Lotan dagoen bitartean pedalei ematen diegu. Esnatzen denean bukaera ematen diogu eta-pari, bere adinarekin luzaroan geldirik egotea egokiena ez dela uste dugu eta. Horregatik, egindako ibilbidea erabat bete ditu lasai bidaiatzeko behar ditugun baldintzak:

- Bide laua eta nahiko zabala: Gurditxoak suspentsioa badu, hala ere zulo, sustrai edo harri batek eten dezake Ekiren loa. Bidea estuegia zelako edo gurditxo salto-ka ziholako errepide txikitara atera behar izan genuen batzuetan. Bizikleta arrunt batez joanda ez dago arazorik, bide osoa jarrai daiteke kanalaren ondoan.

- Ordekan: daramagun pisuarekin aldapa gora motelegi goaz eta egin beharreko ahal-egina handiegia da. Ibilbide osoan maldarik ez genuen aurkitu.

- Itzalpean: garai batean goiz-goizean jaikitzen ginen bero orduak ekiditzeko. Gaur egun, Ekiren siesta eguerdian izanik, ordu-rik txarrenetan ibiltzen gara. Ibilbide gehien itzal platanondoan ondoan doa, beraz eguzkiak trabarik ez du egiten.

- Lotoki ugari eta lasaiak. Etapa bakoitzaren bukaera Ekiren loaren menpe dagoenez, esnatzen denean hurrengo lotokia non dagoen begiratu eta hantxe gelditu. Kanpinak nahiago ditugu eta kanalen ondoko herri askotan aurkitu genituen. Gainera, ibilbide honen kanpinetan lasaitasun osoa aurkitu genuen, oso jende gutxi eta gehienak jubilatuak.

Bestalde, umeak jolasteko parkeak ere ugariak dira eta gehienetan oso ongi zainduak. Frantziako ordutegiek eta hainbat ohiturek (esaterako jatetxeetan umeak mairatzeko margoak ateratzea) ere errezten dute ume batekin bidaiatzearena ■

Eguna	Bukaera	km	oharrak
VI-28	Bordele	0	Bidaia osoko abenturarik handiena tren hain goiz hartzea izan zen. Publizitatean kontrakoa esan arren, bizikleta batekin trenez bidaiatzeko oraindik traba gehiegi daude.
VI-29	Sauveterre-de-Guyenne	60	Bordeleko irteera ezik, beste guztia bidegorria zen.
VI-30	Meilhan-sur-Garonne	30	Dena errepide txikitatik. Kanping-a kanalaren ondoan.
VII-1	Damazan	34	Bide osoa kanaletik. Kanping-a lakuaren ondoan. Ingeles talde bat dago eta cricket partida ikustera joan gara.
VII-2	Agen	33	Bide osoa kanal ondoan. Hiri komertziala, lasaia. Kanal bera erakargarritasunik garrantzitsua da.
VII-3	Moissac	45	Bide osoa kanal ondoan. UNESCOk Gizateriaren Ondasunaren Zerrendan sarturiko herria. St Pierre Abadia, benediktarrek eraikitako monastegia eta ondoko klaustroa benetan ikusgarriak dira.
VII-4	Montech	25	Castelsarrasin-etik aurrera bidea gaizki zegoen. Konpontzeko obrak hasiak ziren.
VII-5	Tolosa	45	Azken 20 kilometroetan bidea ona zen, baina gainontzekoa errepide txikitatik egin behar izan dugu.
VII-6	Deyme	20	Bidea ongi zegoen. Kanpinga kanaletik 3 kmra dago.
VII-7	Castelnaudary	42	Rigole de la Plaine-tik aurrera errepidetik. Oso badi ederra eta jarraian eskusak. Ohiko "Cassolette" a guztiz gomendagarria da (ahata haragia babarrunekin) udara izanda ere.
VII-8	Carcassonne	45	Dena errepidetik. Oso toki turistikoa, erdi aroko hiria (La Cité) jendez beterik egoten da. Bizikletaz bisitatzeko ez da aproposa.
VII-9	Homps	42	Trebesetik aurrera errepidetik joan gara. Herriko kaian unti asko.
VII-10	Mirepeisset	25	Kanaletik desbideratu gara Cesse ibaiaren ondoko kanpinera joateko. Dena errepide eta pistetatik.
VII-11	Villeneuve-lès-Béziers	45	Béziers-etik aurrera kanala hartu dugu. Béziers-en ikusgarriak jarraian dauden 9 eskusak eta zubi-kanala.
VII-12	Agde	35	Mediterraneoko turismo giroa, aurreko egunetan ikusitakoarekin harremanik ez. Vias-era doan errepidea hartu dugu hondartzara doan bidegorria ikusi dugunean.
VII-13	Les Onglous	20	Errepide txikitatik. Agur kanala.

Joan eta etorri

Euskal Herritik Bordelara joateko, bizikletak eramanda, egun osoan tren bakarra dago, hain zuzen ere Hendaiatik goizeko zazpiak hamar gutxitan ateratzen dena. Donostiatik Hendaiara iristeko badago beste tren bat hamar minutu lehenago iristen dena. Kanalaren bukaeratik Katalunia aldera joan ginen eta handik itzuli ginen, baina Adge edo Sète-tik Bordelara joateko trenak badaude.

Argibide gehiago

Association VÉLO Toulouse-k argitaratzen dituen Bordeaux-Toulouse eta Toulouse-Sète liburu gidak, bizikletaz kanala jarraitzeko baliabiderik onenak dira.

Interneten argibide ugari dago, baina azpimarratzekoak dira:

<http://canal-du-midi.org>

<http://www.canalmidi.com/>

<http://www.plan-canal-du-midi.com>





LA MALQUERIDA TABERNA

t. josune velez de mendizabal a. edorta sanz

La Malqueridako berezitasuna: kalitatezko sukaldaritza miniaturan. Sekretua: San Migel elizako atzealdeko atearen lilura. Arrakasta: lekua, gastronomia eta kalitatearen arteko oreka. Honako osagaiak sukaldatu dituzte Mikel, Pablo eta Emiliok azken hiru hiletan eta dagoeneko jendea euren tabernara erakartzea lortu dute. "La Malquerida Jacinto Benaventeren tangoetatik ateratako izena da. Oso izen ozena da, eta txarrerako zein onerako jendearen arreta eskuratu du", onartu du Pablo Grimaldik.

Arbel handi batek tabernako horma hartzen du. Bertan La Malqueridan dauden pintxo ezberdinak irakur daitezke. Hamar-hama-bost pintxoren izenak agertzen dira. "Ez dira beti berberak -diote kideek-. Bezeroarengan sorpresa sortu nahi dugu eta".

Zein da La Malqueridak egiten duen eskaintza gastronomikoa?

Pintxo bereziak dira batez ere egiten duguna. Kalitatezko sukaldeak da baina plateran aurkeztu beharrean pintxoetan edo tapetan egiten dugu, miniaturazko platerak, alegia. Orain arte Gasteizen horrelakorik ez zen ezagutzen eta hutsune hori nolabait bete nahi izan dugu.

Kalitate handiko pintxoak diren heinean prezioan hori ere nabaritzen al da?

Ez, ez. Guztiok ordaindu dezakegun prezioa du gure sukaldeak. Eskaintza eta kalitatearen arteko oreka mantentzen saiatu gara, goi



pablo grimaldi eta mikel martin kideak

La Malquerida tabernak arrakasta handia lortu du hiru hileko epean. Uztailean ireki baitzuten Mikel Martín, Pablo Grimaldi eta Emilio San Juan kideek txoko berri hau Hedegile kalean. Tango izenekoak, eta txikia bezain berezia, Gasteizko ostalaritzan leku egin du taberna honek. Apustu berritzailea.

mailako sukaldea izanik betiere. Gure miniaturazko plater hauen prezioa 2,5 eurokoa da. Entrekot takotxoak ditugu, esaterako. Hortaz, horrelako lau pintxo janez gero bapo beteta joan zaitezke tabernatik. Oso landuak baitira pintxo hauek, bigarren plater txikiak bailiran, alegia.

Tabernaren bereizgarri den pintxorik al dago?

Denak dira bereziak eta berritzaileak. Jatetxe zitala da! Adibide bat jartzeagatik, beira gainerreak ez dituzu Gasteizko beste inon aurkituko. Agian plater osoa eskatzen baduzu bai, baina soilik dastatu nahi izanez gero gurean bakarrik duzu aukera. Goi mailako sukaldea, miniaturan, barran jatekoa, mantel eta ezpain-zapi jatetxea ez den arren.

Zenbatero aldatzen duzue pintxoaren zerrenda?

Bezeroen erantzunaren arabera izan daiteke edota urtaroaren arabera... Zentzu honetan, eta bertan lan egiten duten sukaldariei begira askatasun handia dago. Arbelan ipini eta kendu egiten ditugu pintxo berriak; sorpresa, errotazioa eta orekarakin jolasten dugu. Zentzu horretan negozio malgua egiten dugu, berriro ere, ez soilik jateko modu informalari dagokionez, baizik eta pintxoaren eskaintza handiari dagokionean ere.

Terrazak udan nahiz neguan.

Berogailuaren babesean

Zalantza barik, lekua da La Malquerida tabernaren bereizgarrietako bat.



"Alde Zaharra berreskuratu nahi dugu komertzioari begira", adierazi dute kideek. San Migel elizaren atzealdeko atea dute zaindari kantoiitsu horretan jesaritzen diren bezeroek. Udako azken egunak dira eta eguraldia lagun, kantoiako aldapan dauden egurrezko mahai guztiak beteta daude; tabernaren barrualdean berriz, ezin sartu jendez lepo baitago.

Taberna txikia izan arren, ondo antolatu duzue terraza eta guzti. Baina neguan nola egingo duzue?

Egia da taberna txikia dela. Izan ere, kontzeptu berria ere sortu nahi genuen arlo

honetan. Lekuak xarma du. Txukuna da kokatua dagoen lekuari dagokionez, eta hori probestuz terrazak ere ipini ditugu. Mahaiak udan nahiz neguan mantenduko ditugu kalean. Hau ere kontzeptu berria da. Berogailuak ipiniko ditugu, Europan leku gehienetan egiten den bezala, eta hortaz, neguan ere kalean egon ahal izango da ■

la malquerida taberna

- ✓ hedegile kalean (san migel elizaren atzealdeko kantoiak), gasteiz
- ✓ miniaturazko sukaldea
- ✓ txoko paregabea
- ✓ terrazak urte osoan

Arbeletik ahora. La Malqueridako zenbait zizka-mizka:

"Hauek batzuk besterik ez dira, agian berezietatik berezienak. Baina esan bezala sukalde, toki eta gune desberdinaren eskaintza da La Malquerida jatetxe "zitalak" proposatzen duena. Erakargarria erabat", laburtzen dute kideek.

-beira plantxan baratxuriarekin

-onddoak arrautza gorringoarekin plantxan, boilur txuriarekin

-iberiar ehizaki takoa cuscusarekin

-muskulu salteatuak



Ribabellosa

t. kike fdz de pinedo, filologoa

'Euskara Euskal Herriko azukrea' izan da aurtengo Euskara Añanan Mingainean elkarateak Ribabellosan antolatutako jaiaren leloa. Eta festaren giro onak zapore gozoa utzi zigun beste behin ere. Aurtengoarekin hamabi izan dira eskualdean euskara sustatzeko egindako festak, eta sentibilizazioaz gain gau eskolak lagundu nahi izan dituzte oraingoan. Txalotzekoa da benetan urteroko ahalegin hau Añana bezalako eskualde zabal bezain sakanatua. Lan bikoitza jende gutxi-rentzat. Ez ote dute laguntza eta babes handiagoa merezi instituzio eta denon partetik? Hau esanda, azter dezagun Ribabellosa herriaz dakiguna. Agirietan lehen agerpena 1025 urtekoa da. Iaz, baina, plazan desagertutako San Martin elizaren inguruan egindako indusketetan 178 hilobi aurkitu zituzten, antza VIII-IX mendeak. Herria, ondorioz, uste baino 200-300 urte zaharragoa izan liteke, Gasteizen edo Zalduondo ondoko Aistra herrian erakutsi berri den bezala. Lehen aipatutako 1025 urtean, hortaz, **Ripavellosak** 2 erreja eman zizkion zerga moduan Donemiliaga Kukula monastegiari. Izena erromantzea da, inguruko beste asko bezala. Pentsa liteke beraz euskara hegoaldeko inguru horretan arrotza izan dela beti. Baina beste kasu batzuen moduan, toponimia txikian (soro, paraje, mendien... izenak) euskarak utzitako arrastoa ikus



dezakegu. Gaur egun, adibidez, **Bizkarreta** deitzen zaio eskolaren atzeko muinoari (bizkarra=muino). Ondoan, iturri bat dagoen lekua **Turbe (Iturbe)** esaten zaio (Iturriaren azpian). Herri ondoan ere **Ojarbe** dugu (oihanaren azpian). Edo **Urrutxite** (Uritxite 1705 urtean, hurritzatik edo uri-hiritik letorke). Oraingo **La zarriza**, berriz,

desitxuratu egin da urteen poderioz, 1706an **Gazarriza** baitzen (gatz harrien lekua, gatzarriak oraintsu arte erabili izan dira ganaduak gatzat jan dezan).

Hauekin batera **Lopez de Gereñuk** 1706 urtekoak diren eta gaur arte iritsi ez diren leku-izen hauek ere jaso zituen herrian:

Torrialde (Iturrialde), **Campanabe**, **peña Txurdina** (Atxurdin-haitz grisa) edo ondoko Quintanillan **Remelluri**. Bitxia da azken hau, **Bastida** eta **Errioxako** beste parekideetan bezala, **Arramel** izeneko baten herria (uri) da.

Desagertutako herrixka baten lekuko eta agian, alboko **Villabezanan**, 956 urteko **Donemiliagako** agiri batean agertzen den **Arramel**-ek sortua. Ikus daitekeen ez da zerrenda makala. Hegoalderago ere **Miranda** inguratuz ez ziren falta euskal izeneko herriak **Erdi Aroan**: **Bardahuri**, **Irzu**, **Olhaerrea**,

Basaurri, **Hurizahar**... Ez ditzagun bada, hegoaldeko antzinako hizkuntza egoera zehazteko orduan sailkapen sinplistik egin, hegoaldea, besterik gabe, eremu erromantzea deituz. Herri honetan adibidez, erromantzeak eta euskarak, biek ala biek, utzi zuten beren arrastoa, nahiz eta urteen joan-etorriekin euskararenak galtzen joan diren. Ez erabat, ordea, aurtengo festak erakutsi zigun legez ■



- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Golain Industrialdea
Tl/Fxo: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

ADI,
AGINTARI ETA
POLITIKARIAK!



ZIBER-SEXUA



...BA HERRIAREN
ARAZOEN KONPONBIDEA
ESKURA DUZUE!

GIZARTE
TEKNOLOJIKOAN
BIZI GARA ETA "GÜIFI"
SAREA ZABALTZEN
DOA, EZ TA?



E-MERKATARITZA




TEKNO-
GERRA



HONA HEMEN
ZIBER-ETXEBIZITZA
DENONTZAT!



KIROL BIRTUALA



TXALETAK
ORDENAGAILUAREN
PREZIOAREN
TRUKE!!



Periscopio

**VITORIA-GASTEIZ,
PRENTSA-ARGAZKILARITZAREN HIRIBURUA**
Urriaren 18tik Abenduaren 9ra arte

**VITORIA-GASTEIZ,
CAPITAL DEL FOTOPERIODISMO**
Del 18 de octubre al 9 de diciembre

Niños jugando en el campo de refugiados de Chatila, Líbano | Foto: Alfonso Moral.

www.periscopiovitoria.com



Arabako
Foru Aldundia



Diputación
Foral de Álava

